

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA:

Herri prozesua egituratzeko baldintza objektiboak

IÑAKI ALTUNA > 11


2014ko urriaren 25a | VIII. urtea • 388. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

HAN, GOIAN, AHAZTUTAKO DENBORAREN ONDAREA

> 12 Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



«Nouvelle Belgique» bat edo
independentziaren bezpera? 04

Mahsa Shekarloo, sarean zein
Iranen emakumeen alde 08

Kanpandorreko erlojuak,
ahaztutako ondarea 12

Unibertsitateko ikasketak erronka
nekeza askorentzat 17

e.lkarrizketa: Konsue Salinas 22

Euskara eta sukaldaritza batu ditu
Edorta Agirrek bi hiztegitan 27

In Fraganti: Hasier Larretxea 28



SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Ez da berdina
09 **Naiara Garzia:** Hezkuntzaz II
10 **Eleno Alkain eta Saioa Aginako:** Hitzak dastatuz
11 **Iñaki Altuna:** Herri prozesua egituratzeko baldintza objektiboak
16 **Antton Izagirre:** Glamourra ala oroimena
20 **Beñat Gaztelumendi:** Egiak
21 **Iker Barandiaran:** Simone de Beauvoir-en zapatak
26 **Dani Fano**
31 **Maria Gonzalez Gorosarri:** Albiste agentzien iragazkiaren menpe



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Ez da berdin

Londresen agindutako autonomia erreformaren harira bada gure artean Euskal Autonomia Erke- degoko eta Nafarroako Estatutuak eredu gisa hartu duenik. Horien ustez, Eskoziak, Galesek eta Irlandako Iparraldeak guk daukagun esku- men mailarekin amets egiten dute, eta gure egungo jokalekua beren helmuga ideala da. Hori esaten dutenek ere ez dute halakorik sinesten, diot.

Zergatik ezin dira alderatu Erresuma Batuen estatu erreforma eta Espainiako “*kafea denontzat*” prozesua?

Menpeko nazioekiko helburu bera dute Londresen eta Madrilek, baina hori erdiesteko modua eta, bereziki, muga oso desberdinak dira, eta hor dago aldearen gakoa. Erresuma Batuak, iragan hurbilean ez bezala, egun, bada- ki ezinezkoa zaiola nazio horien biztanleen nahiari kon- tra egitea, gauzak bere horretan uzteko. Horregatik, bi nazio hauen arteko harremanen muga demokratikoa da:

herriaren iritzia eta erabakia.

Horregatik, halaber, Erresu- ma Batuak iraganean bezala gaur ere planteatzen dituen erreformek helburu hori du- te, Eskozian, Galesen eta Ir- landako Iparraldean bizi di- ren biztanleen gehiengoak Erresuma Batuen parte izaten jarraitu nahi izatea. Hori gabe bereak egin du. Es- koziako “krisia” estatu osoa- ren erreforma egiteko erabi- liko du, iraganean Irlandako gatazkaren konponbidea ere erabili zuen bezala. Lau na- zio ezberdin hauen arteko harremana errespetuan eta berdintasunean oinarrituta dagoela adierazi nahi dute, nahiz eta berdintasun hori birtuala izan, desoreka han- diak dituztelako oraindik ere, eta egoera estatuturik gabe- ko nazio hauentzat idealetik oso urruti dagoelako.

Dirudienez, oraingo erreforman, lehenagokoetan ez bezala, Ingalaterrak autonomia eskuratuko du, bere par- lamentuaz eta gobernuaz gain. Azken urteetan dezente indartu da ingeles abertzaleasuna; hor dago UKIP beza- lako alderdien gorakada, eta asko dira orain arteko egoe- rak ingeles nazioari kalte egin diola uste dutenak. Fede- ralismorako bidean pausu garrantzitsua da hau, lau nazio hauen artean berdintasun harreman bat eraikitze- ko aukera paregabea, baina, zalantzarik gabe, indepen- dentisten interesen kalterako izan daiteke. Badira kon- trako ondorioak aurreikusten dutenak ere; Ingalaterrak

berezko autonomia edukita, lau nazioek batera egoteko behar eta nahi txikiagoa izango dutela uste dute. Bestela- ko herri eta estatu eredu aurrerakoiagoa aldarrikatzen duten abertzaleen ustez, Ingalaterrako, Eskoziako, Irlan- dako edo Galesko gizarteak eta “estatuak” norabide eta balio desberdinen arabera eraikitzen diren heinean, Ba- tasun horren populazioa eta babesa txikiagoak izango dira.

Borroka esentzialista, abertzale eta ideologikoak, alder- di demokratikoekin, praktikarekin eta gizarte ereduare- kin lotzen direnean, joko arauak eta, ondorioz, egitekoak nahitaez aldatzen dira. Bide horretan, nire ustez, hege- monia elektoral lortzeak bezainbesteko garrantzia du ideia, helburu eta urrats jakin eta zehatzen aldeko hege- monia politikoa eskuratzeak. Erabakitze eskubidearen aldeko gehiengo zabalak independentziaren aldeko gehiengoari eman behar dio bide eta, horrela, helburuz

Menpeko nazioekiko helburu bera dute Londresen eta Madrilek, baina hori erdiesteko modua eta, bereziki, muga oso desberdinak dira, eta hor dago aldearen gako nagusia

helburu, pausoz pauso, aurrera egin behar da. Horretara- ko, borroka elektoral eta instituzional egokiaz gain, guz- tiz beharrezkoa da gizarte mugimendu eta borroka in- dartsua, sektorez sektorekoa, eta sektoreek zeinek bere ikuspegiarekin ekitea. Hegemonia elektoral eta politi- koa aldi berean bultzatzeak kontraesan eta arazo ugari eragiten ditu, eta funtsezkoa da biak ez nahastea, bakoit- zari merezi duen garrantzia aitortuz. Demokraziaren ikuspegitik, eta norberaren helburuen aldeko babesa es- kuratzeari begira, garrantzitsua da aitortzea arerioaren helburua norberarena bezain zilegi dela, arerioaren proiektua ongi ezagutzea ere ezinbestekoa den bezala. Nelson Mandelak sutuki defendatzen zuen, eta, hala, Apartheid sistemaren nondik norakoak (historia, hiz- kuntza, eta abar) ikasi zituen. Baina, berak esaten zuen bezala, «beti dirudi ezinezkoa, lortzen den arte».

«KOALIZIO KAMIKAZE»

«Nouvelle Belgique» baten giltzarri edo independentziaren bezpera?

📁 JENDARTEA / Mikel ZUBIMENDI

Belgikako gobernu berriaren osaketa-prozesuak analista askoren jakin-mina piztu du. Aurreko legealdian ia bi urte gobernua osatu ezinik egon ostean eta herrialdea hautsiko zela iragarri ondoren, oraingoan, flandriar independentistek dinamizatu duten koalizioa osatu da. Historian lehen aldiz, hiru flandriar alderdi eta Valoniako alderdi minoritario bat batu dira. «Experimentu politiko» honen aurrekariak, arrazoiak eta inplikazioak Euskal Herritik begiratuta aztertzea beharrezkoa den ariketa da.

Belgikako egoera politikoa ulertzea ez da erraza. Flandriarrak eta valoniarrak, neerlandera eta frantsesa, bi kultura, bi hizkuntza, bi mentalitate politiko eta, bien artean, itsasgarri, Brusela: Europako hiriburua, Flandriako lurraldean kokatua, biztanleen ia %80 frantses hiztuna dena. Flandria, hein batean, eta gauzak sinpleki adieraztearren, sinplifikazioan erortzeko arriskua aitortuz, kontserbadoreagoa da, merkatu librearen aldekoagoa. Valoniarekin alderatuz, tradizionalki sozialisten esku egon dena, langabezia ia erdia eta errenta per kapita %25 handiagoa dauka. Eta hizkuntza eta kultura arloetakoaz gain, bi komunitateen artean etsaitasun ekonomikoa ere badago: Flandriak, nolabait, Valonia diruz laguntzen duela. Erantzukizun horren izenean, eskumen fiskal berriak eta Gize Segurantzaren eskatzen ditu, eta, Valoniak, aldiz, estatu federaletan elkartzaren printzipio oinarritzakoaren izenean, erabateko ezezkia ematen dio. Iparralde «aberatsa» eta hegoalde «pobreagoa» beti aritu dira hika-mikan, sarritan, diskurtso populista hutsekin eta arriskutsuei bide emanez.

Agian, estatu batu gisa, Belgika azkenetan dela esatea gehiegizkoa da, baina 2010eko ekaineko hauteskundeetako ondoren, «desgobernuaren munduko

errekorra» hautsita –539 egun gobernua osatu ezinik–, eta paralisi egoerak kateatua, desegiten ari zen estatuaren ideia asko indartu zen. Bazirudien Belgikako bi komunitateak eraso pasiboko espiralean murgildu zirela betiko, helburu komun oro urrun geratzen zitzaiela, baina, nork bere hitzekin adierazita ere –«verrottingsstrategie» neerlandera eta «stratégie du pourrissement» frantsesez–, bat zetozela asmoetan: egoera usteltzen utzi, errealitate berri baten ongarri bilakatu zedin.

Azkenean, baina, teoria politikoan «compromis à la belge» bezala ezagutzen dena gailendu zen beste behin. Hots, alde ezberdineen interesak asetzen dituen konponbidea bilatzeko artea, hitzarmenaren eta konpromisoaren bitartez ezinezkoa zirudiena nahitaezko egitearen artea, hain zuzen. Bazirudien, konponbiderik ezean, bi komunitateak modu zibilizatu bantantzea zela bidezkoena eta zentzuzkoena, baina, azken unean, Belgikako politika aski aldrebestuak lortu zuen ataka hartatik ateratzea.

«NIL VOLENTIBUS ARDUUN»

2010eko hauteskundeetan, flandriar independentismoak irauli egin zuen Belgika. Flandriaren independentzia xede duen N-VA alderdi errepublikarrak aurreikuspen guztiak gainditu eta Belgika osoko lehen alderdi bilakatu zen. N-VAko liderra den Bart

Belgikako bi komunitateek, eraso pasiboko espiralean, helburu komun oro galduta, are bakoitza bere hitzekin ere, asmo berbera zutela zirudien: egoera usteltzen utzi, errealitate berri baten ongarri bilakatu zedin

Flandriako N-VArentzat azken urteotako irabazi garbiak egonkortzeko unea heldu dela dirudi; Belgikako etxe komunetan «ordena pixka bat» jartzea eta, valoniarrak «ez beldurtzeko», moderazio kalkulatu bat erakustea interesatzen zaiela



de Weverrek irabazle gisa egin zuen lehen diskurtsoa latindar atsoitiz famatu horrekin hasi zuen: «Egiazki desiratur gero, ezer ez da ezinezko». Bere mezua argia izan zen: Flandria eta Valonia soilik helburu komunak dituztenean batzen diren bi entitate banandu eta deszentralizatu bihurtzea proposatu zuen. Konfederazio deitu zuen; hots, azken helmuga independentzia duen bidean igaro beharreko tarteko helmuga.

Valoniarentzat otso gaiztoa da Bart de Wever. Elio di Rupok, Valoniako sozialisten buruak, hitzez estatuaren erreforma sakona bultzatu, baina ekintzaz ez zuen de Weverrekin adostu egitasmo hura. Ondoren etorri zena gauza jakina da: ia bi urte gober-



Komunitate frankofonoaren heren bat baino gutxiago ordezkatzeko duen Valoniako alderdi liberaleko Charles Michel, «koalizio kamikazeak» sostengatzeko duen 38 urteko Belgikako lehen ministro berria.

Laurie DIEFFEMBACQ | AFP

nurik gabe, munduko errekorra hautsi eta, azkenean, in extremis, hiruko akordioa «familia ideologiko» tradizionalen artean: Flandriako eta Valoniako kristau-demokratak (CD&V), Flandriako eta Valoniako liberalek (Open Vld/MR) eta Flandriako eta Valoniako sozialistak (sp.a/PS). Modu honetan, bestalde, idatziz gabeko arau bat bete zuten: gobernu federala osatzeko, bi hizkuntz komunitateetan gehiengoa izatea ez da nahitaezkoa, baina politikoki askoz hobe da.

2014ko maiatzeko hauteskundeetan, baina, joerak indartu egin ziren. 2010ean irabazle ateratu zen alderdiak, «independentista erradikalegia» zelako albo batera utzi zuten N-VAk, nagusi-

tasun handiagoz irabazi zituen hauteskundeak. Ganbera federalean, Valoniako PSk baino 10 puntu eta 10 aulki gehiago aterata, gobernarritasuna bermatzeko ezinbestekoa bilakatu zen. Aritmetikak bi aukera uzten zituen: «familia ideologikoen» hirukoa errepikatzea edo N-VA gobernu federaletako kide indartsuena egin, eta koalizio berri bat entseatzea.

Logika konfederalari jarraiki, Flandriako gobernu osatzeari eman zion lehentasuna N-VAk eta bertako kristau-demokraterekin eta liberalekin osatu zuen. Valonian eta Bruselan, PSk osatu zuen gobernu, Charles Michel buru zuen Mouvement Réformateur (MR) alderdi liberala bazterrean utziz. Agian, MR alder-

diak PSrekiko errebantxa gogoa zuelako eta, dudarik gabe, N-VAk Valoniako PSk Belgikako politika federalean urteetan izan duen nagusigoari amaiera emateko gogoa zuelako, azkenean, Flandriako gobernu osatzen duen hirukoak eta Valoniako liberalek osatu dute Belgikako gobernu koalizio berria. Munduan «koalizio kamikazea» izenez ezagutu dena.

ZERGATIK «KAMIKAZE» HITZA?

Flandriako eta Valoniako egunkarietan hasi ziren gobernu koalizioari izen hau ematen. «Koalizio kamikazea», funtsean, desoreka handia du: Belgikako parlamentuan dauden 150 eserlekuetatik 66 ordezkatzeko dituen gehiengo flandriarra eta

150etik 20 ordezkari dituen gutxiengo frankofonoa biltzen ditu. Hiru flandriar alderdi, buru N-VA alderdi independentista dela, eta valoniar alderdi bakarra, Belgikako lehen ministro Charles Michelek zuzentzen duen MR.

Ekuazio hori politikoki buruaz beste egitea dela iruditzen zaio askori Valonian. Eta, egiazki, orain arte Belgikan nagusitu den logika politikoan, sen onean lurrikara bat eragin du. Badira, hala ere, zorte apur batekin, eta Europako nahiz Belgikako garapen ekonomikoa ona bada, duela hiruzpalau urte haustera kondentatuta zegoen herrialdea egonkortzeko formula bezala hartu nahi dutenak. Dena dago ikuskizun, ordea.

Hauteskundeak egin eta 138 egun geroago ofizialdu zen gobernu honen alde inor gutxi egiten du apustu, luzaroan iraungo ote duenaren inguruan zalantza handiak daude eta Belgikako historian gobernu iragankorrera izan daitekeela diote askok.

Bai, bitxia eta aztertzekoa da gobernu belgiarra osatzeko gertatu diren aldaketa eta berezitasunak. Bi hizkuntz komunitateetan gehiengoa izan gabe osatu izan da noiz edo noiz gobernu, eserleku bat edo biren faltan, baina sekula ez egungoa bezalako egoeran –komunitate frankofonoaren heren bat baino gutxiago ordezkatzeko–. Lehen aldia da Belgikako gobernu federalean Valoniako gobernuan ez dagoen ordezkari talde dagoela. Berezia da, halaber, lehen ministroa koalizio talde handienaren ordezkaria ez izatea. Charles Michelek arrisku handiak hartu ditu, bestalde, «eskuineko agenda» bat historikoki «ezkerra bozkatu» duen Valonian ezarri nahi izatean. Ez dira falta «kamikazea ezinezko misioan» ikusi dutenak.

Izan ere, independentzia aldarrikapenak eta konfederazioaren bidean estatu erreforma sakon baten aldeko apustua taktikoki alboratu, edo hobe esanda, atzeratu egin dituzte Belgikako gobernu lehen aldiz parte hartuko duten N-VAko independentistek. Neurri ekonomikoak lehenetsi dituzte gobernu programan eta, hala, besteak beste, erabaki dute erretiroko adina 65 urtetik 67ra pasatzea, inmigrazio eta asilo neurri zorrotzagoak hartzea, Belgikako zorra gutxitzeko murrizketa andana ezartzea eta zentral nuklearrak 2025 urtera arte lanean aritzea.

Horrek guztiak bultzatu ditu Elio di Rupo sozialista frankofonoak eta sindikatuak gobernu berriaren aurkako «gerrilla kanpaina iraunkorra» deitzera. Erraz igartzeko da gobernu berriak hizkuntz komunitateekiko harremanetan baino gehiago sindikatuekiko harremanetan izango dituela arazorik handienak, grebak eta bestelakoak sartu baiti-

tuzte zerbitzatuko dioten me-
nuan.

Charles Michel gobernuburuak, Belgikako errege berri Philippek izendaturiko lehenak, historiako gazteena (38 urte) eta Europako komisario eta Belgikako Kanpo Arazoetarako ministro izandako Louis Michelen seme denak, bere alderdiko zazpi kide izendatu ditu ministro. 150 eserlekuetatik 20 eserleku dituen alderdi batek gobernuburua eta 14 ministerioetatik zazpi eskuratu –parekidetasuna ez bezala, agindu konstituzionala da go-
bernuan neerlandar eta frantses hitzunen komunitateen ordezkari-
tzak baliokideak izatea–, gainerdezkatuta dagoela pentsa daiteke, nolabaiteko defizit demokratiko bat dagoela, bai. Datu hau ere aipatzeko modukoa da: gobernuko indar nagusi flandiar N-Vak bere egin ditu Finantza, Defentsa eta Barne ministerioak. Ez dira distira handiena dutenak, baina botere oso handia dutela ezin da ukatu.

Euskal Herritik begiratuta, bitxia eta deigarria da Flandriako independentisten esku egongo direla Belgikako Finantzak, Armada eta Poliziaren ardura. Ez

ordea hango kultura politikoa-
ren ikuspuntutik, ezta Flandria-
ko independentziaren bide orriaren beharrak behatuz ere.

Komunitate frankofonoan de-
abrututako flandriar indepen-
dentistek ez diote uko egin Flan-
dria independente baten ametsari. Ez horixe. Datozen urte-
etarako, ordea, konfederazioa-
ren bidean bere agenda mantso-
tu eta lehentasuna eman diote
ekonomiari eta, nolabait, Belgi-
kako etxe komunean «ordena
pixka bat» jartzeari. Hogeita
bost urtez gobernuan izan diren
Valoniako sozialistak kanpoan
utzi dituztela ez da ahaztu behar
eta, beste hark esango zukeen
bezala, «gobernutik kanpo hotz
handia egiten duela» ere ez.

Azken urteotan irabazi garbiak
eta handiak eskuratu dituzte N-
Vako independentistek. Badirudi
orain irabaziok egonkortzeko
ordua heldu zaiela. Eta horretara-
rako, oso arrazoizkoak diren ja-
rrierak izan dituzte, frantsez ko-
munitatea «ez beldurtzeko»
moderazio kalkulatu bat eraku-
tsiz. Jakina ez dutela indepen-
dentiaren aukera baztertu, bes-
te herri askotan bezala, arrakasta
izateko aukera arrazoizko bat es-

kura dutenean, agendaren lehen
puntua izango da eta.

Gauza asko dago ikuskizun
oraindik Belgikako gobernu be-
rri eta berezi honen inguruan.
Ikuskizun dago PSk «Valonia za-
paltzen duen eta Flandriak do-
minatzen duen Estatu Federala-
ren gobernuaren» diskurtsoa
erabiliko duen. Alegia, flandria-
rrak deabruzeko erabiltzen zi-
tuen argudio berak erabili, eta
desestabilizazio kanpaina bati
ekingo ote dion. Ikuskizun dago
«larrialdi sozio-ekonomiko bati
aurre egiteko» osatu den koali-
zioak, «eskuineko agenda» izan-
go duenak, Valonia gobernatzen
duten «ezkerreko indarren» aur-
kakotasuna izango duen ala ez.
Urteetan karikatura izateraino
iritsi den Estatu Federala versus
Flandria ekuazioa ez ote den
orain Estatu Federala versus Va-
lonia bilakatuko.

Belgikaren sortzaileek errege
bat behar zutela erabaki zutene-
an, hautagai egoki baten bila
«erosketak» egitera joan ziren
Europar barrena. Frantziako
erret familiak haien eskaintza
errefusatu zuenean, «langabe-
zian» zegoen aristokrata aleman
baten alde –Sajonia-Coburgo–

Gothako Leopoldo printzea– egi-
tea erabaki zuten. Dinastia bere-
ko laurogeitaka urteko Alberto
erregeak bere seme Philippen al-
de abdikatu zuenean, errege be-
rriak behin eta berriz errepikatu
zuen bere hitz fetitxea: «federali-
simo kooperatiboa», «nouvelle
Belgique» horren giltzarri. Asko
dira «koalizio kamikaze» hone-
kin federalismo kooperatiboak
arrakasta izango ote duen galde-
tzen dutenak. Nork daki!?

Baina hala ez balitz, Flandria
eta Valonia subjektu politiko
bereizi bezala pentsatzen eta jo-
katzen segitzen badute, Belgika-
ren inplosio geldoa denbora
kontua dela konbentziturata, Bel-
gikako «iparraldearen» eta «he-
goaldearen» arteko harmonia
ezinezkoa bada, aurreratu dai-
teke etorriko den hurrengo fa-
sea konfederalismoarena izan-
go dela. Valonia eta Flandria bi
herrialde banandu eta deszen-
tralizatu bilakatuko dira, soilik
ezinbestekoa denean –eta baka-
rrik orduan– elkarrekin funtzio-
natuko dutenak. Eta ez al da ho-
ri, funtsean, N-Varen eta PSren
kalkuluen emaitza? Ez al da ho-
ri, bi hitzetan, independentzia-
ren bezpera?

Ezkerrean, Bart de Weber.
Flandriako N-VA alderdi
independentistaren buruak
Anberesko alkate izaten
jarraitzea erabaki du nahiz eta
askok pentsatu bera dela
Belgikako politikari
boteretsuena. Eskuinean,
Belgikako tren geltoki bat.
Valoniarren eta flandriarren
arteko harremanean aukera
berri batera edo modu
zibilizatuan banantzer
eramango ote dituen inork ez
dakien bidaia baten metafora
gisa.
Dirk WAEM - Eric LALMAND | AFP



1,5€

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN



DATORREN OSTIRALEAN
ZURE KIOSKOAN SALGAI

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA



Harpidetu • 11 ale 15€ urtean • www.zazpihaizetara.com

{ profila }

MAHSA SHEKARLOO

Emakumeen eskubideen defendatzailea, sarean zein Iranen

joseangel.oria@gaur8.info

Mahsa Shekarloo emakumeen eskubideen defendatzailea, idazlea, editorea, itzultzailea eta Bad Jens sareko aldizkari feministaren sortzailea minbiziak eraman zuen irailaren 5ean. Etxekoek inguratuta zendu zen Irango hiriburu Teheranen jaiotako emakumea. Herrialde hartako gizartean feminismoaren hazia landatzen saiatu zen beti, aiatolen sistemak utzitako edozein zirrikitu baliatuta. Ezagutu zutenek haren falta sentitzen dute.

Iran oso herrialde handia da. Eta anitz. Bere iraultza islamikoa orain 35 urte egin zuenetik, AEBen eta Israelen jomugan egon da, eta horrek sekulako eragina izan du bertako politikan zein gizartean. Baita emakumeen eskubideen defentsari dagokionez ere. Mahsa Shekarloo bezalako ekintzaileek ahal duten guztia egiten dute gizarte hura askatzeko eta demokrazia indartzeko. Aldi berean, hedabide nagusiek saltzen diguten Iranen irudi monokromatikoa, homogeneoa, ñabardurarik gabekoa, hankaz gora jartzen laguntzen dute ekintzaileok.

«Mahsa atsegina, eszeptikoa eta azkarraren zen. Orain bere izena horrenbeste aipatzea ez litzaioke batere gustatuko. Bere lanaren eta pasioaren azken helburua ez zen ez bere anbizio pertsonala asetzea ez hedabideetako izar bihurtzea. Bere jakin-minarengatik, bere giza eskubideekiko eta emakumeen eskubideekiko ardurarengatik eta benetako aldaketa egingarria zela pentsatzen zuelako egin zuen horrenbeste lan», idatzi zuen Arseh Sevom gobernu kanpoko erakundeko kide Tori Egghermanek.

AZIDOA AUTOA GIDATZEN DUTENEN AURKA

Nazioarteko berri agentziek azken bolada honetan eskainitako berriei erreparatu besterik ez dago gaur egungo Iranen emakumeen eskubideak atzera egiten ari direla ondorioztatzeke. Beren gorputza Sharia lege islamikoak agindu moduan estaltzen ez omen duten emakumeei azidoa botatzea da gaur egun indartzen ari den fenomeno kezagarri bezain larria.

Mohamad Tagi Rahbar Isfahan hiriko klerikoak joan den astelehenean esan zuen behar bezala jantzita ez dauden emakumei ondo jazteko esan behar zaiela, besterik gabe, azidorik bota gabe. «Emakume bat oso gaizki jantzita bada go ere, okerrago jaztea ezinezkoa dela dirudienean ere, ez da hori zigor egokia»,



Goiko irudian, Mahsa Shekarloo ekintzailea. Behekoan, Iranen aurtengo otsailean egin zen One Billion Rising ekimenaren logotipoa.

GAUR8

Eskuineko orrialdeko irudian, Isfahango Fiskaltzaren aurrean joan den asteazkenean egin zuten emakumeen aurkako erasoak salatzeke mobilizazioa.

Arya JAFARI | AFP



adierazi zuen. Izan ere, Irango erdialdean dagoen milioi eta erdi biztanleko hirian, azken asteotan, makina bat kasutan bota diete azidoa autoa gidatzen ari ziren emakumei motoz hurbildutako ezezagunek. Ondorioz, Soheila Yourkesh 27 urteko informatikariak, esaterako, begi bat erabat galdu du eta bestea oso kaltetuta geratuko zaio, erietxetik irteten denean. Beste gorputz atal batzuk ere erre zizkion erasotzaileen azidoak.

Tankerako berri ugari iristen da erre-dakzioetara, normalean, horrelako berriek hango gizartean eragiten dituzten mugimenduak aipatu ere egin gabe. Isfahan hiriko eraso kasuan, diputatu batzuek salatu egin dute gertatzen ari dena. Abasali Mansuri Arani parlamentariak nabarmendu zuen horrelako erasoak Estatu Islamikoak egiten dituela Iraken eta Sirian, eta «islamaren itxura biolentoa» hedatzea besterik ez dutela lortzen. «Gaia oso ondo ikertu behar da, ezin baitugu baztertu atzerriko zerbitzu sekretuak eta sionistak egotea fenomeno gaizto horren atzean», adierazi zuen Mansurik.

Horrelako egoerak onartezinak eta jasanezinak dira irandar gehienentzat. Bertako emakume askok etxetik ez irtetea erabakitzen dute, erasoak saihesteko. Autoan doazenean, kristala goraino igota eramaten dute, erasotzaileen beldur direlako. Motoren bat (ibilgailu hori erabiltzen ari dira erasotzaileak kasu gehienetan) ikusten duten bakoitzean, korrika hasten dira babes bila. «Kalean ia ez dago jenderik, etxetik irteteak beldurra eragiten du-eta», esan zien kazetariei Parisa 46 urteko emakumeak. Berak eta unibertsitatean alabaren bat duten beste guraso batzuek Isfahango Fiskaltzaren aurrean protestaldia egin zuten joan den asteazkenean.

HAURTZAROA, CHICAGON

Eraso krudel horiek Irango sektorerik kontserbadoreenen oniritzia badute ere, ez dute lortzen Teheran, Isfahan eta herrialdeko beste hiri handietako emakume guztiek gorputza erabat estalita eramatea. Ausartenek buruko zapia atzeraxeago ipintzen dute, ile pixka bat ikusten zaiela, esaterako.

Hezkuntzaz II

Naiara Garzia

Pio Barojaren (1872-1956) eleberri bateko protago-

nista, Andres Hurtado, bizitzako arazoan funtsera irits daitekeen jakinduria horren bila ibili zen, berarentzat jakinduria ezin baitzen bizitza den horretatik bereizi. Horregatik ikasi zuen unibertsitatean.

1911. urtean Barojak "El árbol de la ciencia" liburua argitaratu zuen. Bertan, garai hartako gizarteari buruzko gogoeta asko eta asko biltzen ditu, unibertsitatearen ingurukoak, esate baterako. Mende bat geroago unibertsitateera joatea egokitu zitzaidan, master bat egitera, hain zuzen ere. Zazpigarren urtea zen niretzat bertan, oraingoan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Urte horretan, Barojaren liburua berrirakurtzen ari nintzen bitartean, Andres Hurtadoren esperientziak nirearekin bat egiten zuela ikusi nuen, eta, beraz, unibertsitatearen egoera ez zela hainbeste denboran gehiegi ere aldatu.

Unibertsitatea (letretako "gradueta", behintzat) begiak irekiarazteko gaitasun txikia duten irakaslez beteta dago, jakinduriak ez baina beste inertzia batzuk bultzatuta bertan lan egiten duten pertsonaz jositakoa, burua ladreiluz tapiatuta daukagula uste duten irakaslez gainezka.

Salbuespenak, ordea, egon badaude, eta irakasle onak ere topatu ditzakegu ("El árbol de la ciencia" laneko Letamendi irakaslearen modukoak), ahaztezinak diren horietakoak. Minoria horri esker eutsi diogu fedeari. Horiengatik izango ez balitz eta, paradoxikoa dirudien arren, unibertsitatea ikasteko lekuri okerrena dela pentsatuko genuke, bizitzarekin inolako zerikusirik ez duena, leihorik gabeko ladreiluzko kubo ilun bat. •

Egoera hori bertakoentzat onartezina bada, onartezinago egiten zaie atzerriko egoera ezagutu dutenei. Mahsa Shekarlook AEBeko Chicago hirian pasa zuen haurtzaroa eta, unibertsitatean ikasketak amaitu ondoren, Iranera itzuli zen. The Feminist School erakundeko webgunean era honetan esplikatu dute bere ekarpena: «Bere esperientzia eta jakinduria bertako kultura indartzeko erabiltzen zuen diasporako talde bateko kide egin zen Mahsa. Sistema politikoaren zulo txikiak mugimendu feminista zabaltzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan eztabaidatzeko baliatzen zuten Irango emakumeekin bat egin zuen».

Aurtengo otsailean One Billion Rising ekimena antolatzen lagundu zuen Shekarlook Iranen. Mundu osoko gizonen, emakumeen eta umeen dantza egiteko eta mugitzeko gonbita egiten zaie, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Era honetan deskribatu zuen bere burua antolatzaileen taldeak Facebook sare sozialean: «Emakumeentzako justizia exijitzeko era bat baino ez da One Billion Rising, etxean zein gizartearen emakumeak berdintasuna behar duela pentsatzen duten taldeek bat egin dezaten aitzakia. Kaleak okupatzen ditugu gure bizitzak josten dituztelako, gure etxea direlako. Kanean sortzen dira gure oroitzapenak, penak eta pozak. Bertan topatzen ditugu aliatuak eta lagunak. Eta bertan jabetzen gara arriskuez. Gure etxeak jadanik seguruak ez direnean, kaleetan babesten gara. Kalea hartzea da berradiskidetzea, berdintasuna eta justizia lortzeko gure modua. Kalea hartzen dute beraientzako eta besteentzako zoriona nahi dutenek, eta zorionaren aldeko borrokarako prest daudenek».

Bad Jens sareko aldizkari feministaren sortzailea ere bazen Mahsa Shekarloo. *Qantara.de* Ale-

maniako webguneari orain zazpi urte eskaintako elkarrizketa batean, Mendebaldean oso kontuan hartzeko moduko hausnarketak eskaini zituen irandar ekintzaileak: «Iranera etortzen diren mendebaldar gehienek pentsatzen dute Irangoak direla munduko emakumerik zapalduenak. Ez dakit horrela den ala ez. Aurreiritzi horretatik abiatuta, hemen ikusten duten guztiak baieztatzen die ideia hori. Orain, Jatami presidente dela, beste estereotipo bat ere badago, beste itxura bat: emakume gazte batena, buruko zapia oso atzean duena, makillatuta dagoena eta arropa estua daramana. Goraipatu ere egiten dute bigarren irudi hori. Egia esan, neska horiek egiten dutena garrantzitsua da, baina ezin da esan hori historiako iraultzarik handiena denik. Eta mendebaldarrek Irango emakumeen inguruko irudi ona badute, beti heroi horiena da. Bi mutur daude: biktima pasiboak diren emakumeak alde batetik, eta arau sozial guztiak apurtzen dituzten salbuespenak bestetik. Erdibiderik ez dago, nonbait».

Iranen justizia, askatasuna eta berdintasuna eskatzen dutenentzat oso tresna garrantzitsua izaten ari da Internet. Eta ingelesez zein persieraz idazten zen Bad Jens aldizkariak sekulako arrakasta izan zuen, edozein gai aztertzeke aukera ematen baitzuen, egunkarien eta paperezko aldizkarien mugarik gabe. Shekarloo aitzindari izan zen arlo horretan, sareak sekulako garrantzia duen herrialdean. Orain 10-12 urte, sarean gehien erabiltzen diren hizkuntzen sailkapenean persiera bigarren lekuan ageri zen eta, garai hartan, Irango blogariek sekulako arrakasta izan zuten. 2008ko ikerlan batek ondorioztatu zuen Iranen ideologia ezberdinetako herritarrek esku hartzen zutela sareko eztabaidetan. Agintariek ezarri nahi dituzten mugak egunero zeharkatzen dira. Eskerrak!





Eleno Alkain eta Saioa Aginako

Psikoterapeutak

Hitzak dastatuz

Lo egiten eta jaten pasatzen ditugu jaio osteko hasierako hilabeteak. Tartean, irudi askotarikoak agertzen zaizkigu begien parean, forma eta kolore ezezagunak ekar-tzen dizkigutenak. Belarrietatik soinu eta zarata korapilatuak barneratzen ditugu. Ahoa bihurtzen da inguratzen gaituzten objektu kontaezinak ezagutzeko bitartekaria, eta, gerora, eskuak eta atzamarren zentzua ikasten dugunean, sua zein ura ukitzeko jakin minak hartzen gaitu, aldi berean, sudurrak gurasoen beso baregarrietara gidatzen gaituela. Eta horrela, pausoz pauso, supituki agertu garen munduaren kodeak eta arautegia ikasten goaz, konturatu gabe; soilki barneratuz.

Zentzumenek laguntzen digute betekizun horretan. Haur eskolan, gure bost zentzumenen funtzioak ikasten ditugu. Txanogorritxuren ipuin ezagunaren pasarte batean esaten den bezala, begiak ikusteko, belarriak entzuteko, sudurra usaintzeko, eskuak ukitzeko eta ahoa dastatzeko erabiltzen ditugu. Berrezkoa dugu. Hala ere, magia iruditu arren, musika ikusi, zaporeak haztatu, pertsona baten izaera usaindu edota orgasmo bat koloreetan bizitzeko ahalmena duten pertsonak ere badira munduan. Gertakari hau, gutxi batzuk duten trebetasuna, sinestesia izenarekin eza-guna da.

Ez da horren aspaldi, aipatutako ahalmena azaleratzeak edo adierazteak erietxe batean giltzapetzeko arriskua zekarren; ez zegoen sinestesiaren inguruko ikerketarik eta, ondorioz, gaixotasunek sor zezaketen haluzinazioekin nahasten zuten sinestesia. Ordu-tik, zientziak aurrerapauso handiak egin ditu eta, ikerketa askorik ez duen fenomeno izan arren, gaur egun badakigu zentzumenetatik ateratako informazioa prozesatzen dituzten garuneko ondoz ondoko eremuen aktibazio gurutzatua-ren ondorioa dela. Alabaina, bigarren zentzumen bat gehitzen zaio, zentzumen bakarrari egozten zaion kinadari. Grekoa menderatuz gero, hitzean bertan dugu adiera: syn: lotura eta aisthe-sis: hautemate edo sentsazio.

Sinestesia mota ezberdinak aurkitu ditzakegu, batzuk besteak baino arrun-tagoak. Horien artean dago hitza eta dastamena elkarlotzen dituen; alegia, hitz bat ahoskatu, eta zapore bat dator-kigu gogora, oharkabea. Beste mota bat da hizkiak, ikurrak edo zenbakiak koloretan ikusten dituzten pertsonena. Halaber, arrunt antzekoa da pertsona batek musika entzutearekin batera ko-loreak ikustea, doinuaren maiztasuna-ren arabera.

Sinestesia modu orokorrean azaldu eta gero, erraz konturatuko gara es-kura ditugula sinestesiatik gertu dau-den eta guztiok erabiltzen ditugun baliabideak egunerokotasunean. Adi-bidez, literaturan, baliabide erabiliene-tako bat da metafora. Metaforan, sen-tsazioak eta sentimenduak adierazi eta indartzeko sinestesia izeneko baliabi-dea erabili dezakegu; esaterako, soinu bat ziztatzaila dela esaten dugunean. Zenbait ikerketek erakutsi dutenez, gi-

zaki guztiek forma berdinarekin eta oso antzekoarekin lotzen ditu soinuak, soi-nu mota gorabehera. Gertakari hau fro-gatu nahian, W. Köhler psikologoak ex-perimentu bat egin zuen XX. mendearen bigarren hamarkadan. Bi forma ezberdin erakusten zituen: bata, punta zorrotzekoa; bestea, biribildukoa, eta bi izen “takete” eta “baluba” aipa-tzen zituen. Izen bat forma bakoitzaren-tzat, baina zein zeinentzat? Zuk zein au-keratuko zenuke? Bada, %90ek “takete” erabiltzen zuen forma zorrotzarentzat eta “baluba”, aldiz, biribilduarentzat. Harrituta? Antza, garunak forma eta soinuetatik ezaugarri abstraktuak on-dorioztatzeko gaitasuna dauka.

Imajinatu ezazue zenbat zirrikitu eze-zagun dauzkan garunak oraindik ere, nork aurkituko zain. Irudimenari hegan egiten uzten diogun bitartean, zergatik ez margotu Vivaldiren “Lau Urtaroak” edo dastatu Kirmen Uriberen olerkien zaporea? Zentzumenekin gozatu, jolas-tu eta garatu? •



Koloreek umeen arreta erakartzen dute.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Herri prozesua egituratzeko baldintza objektiboak

Gertu da Josu Muguruza Herri Batasuneko Mahai Nazionaleko kide eta “Egin” egunkari-ko erredaktore-buruaren hilketaren 25. urteurrena. Bost urte lehenago Santi Brouard buruzagi abertzalea hil zuten egun berdinean, azaroaren 20an, egin zioten tiro Madrilen, Kongresuko diputatu akta hartzera zihoala. Euskal Herriko prozesu politikoan gogorra bezain esanguratsua izan zen gertaera hari buruz lan sakon bat egiten ari da GARA, Josu Muguruzaren izena eta izana ez ezik, orduko une historikoa ere hobeto eza-gutu eta ulertzeko. Aljerreko elkarriketa politikoekin jo zuen gailurra ziklo politiko hark, Francoren heriotza-ren ondoren hasitako trantsizioak hamar urte bete zituenean. Gatazka konpontzeko aukera sortu zen eta ezker abertzaleak, negoziazio politikoaren bidez, beste marko juridiko-politiko bat, KAS alternatibaren oinarritua, lortu nahi izan zuen, Estatuak egindako erreformek (Espainiako Konstituzioa, EAEko Estatutua eta Nafarroako Foru Hobekuntza) Euskal Herriaren ukazioa besterik ez zekartelako.

Beharbada, aurreko aipamen guztiek zerikusi handiagoa dute memoria historikoarekin “Asteari zeharka begira” atal honekin baino, honetan, egungo berriak eta egoera baititugu xede. Hala ere, orduko eta gaurko aldagaiak alderatuta, ondorio oso interesgarriak atera daitezke.

Aljerreko prozesua martxan jartzeko aukera, funtsean, ETaren borroka armatuak ekarri zuen. Hala onartu zuen orduko PSOEn Gobernuko bozeramailea zen Rosa Condek, bide poliziala erakunde armatuarekin amaitzeko gai ez zela esan baitzuen. Beste formulazio bat ere egin daiteke, Alfredo Perez Rubalcabaren gus-tukoa. ETaren bonbek eta HBren bozek (2007ko Euro-pako hauteskundeetan jo zuen sabaia) «konbentzitu» zuten Gobernuak elkarriketak hasteko. Ez zen amaraun instituzionala auzitan egotearen ondorio izan. Konstituziotik eratorritako egiturak zilegitasun falta zuen Euskal Herrian, eta ezker abertzalearen jarduerak ez zion egonkortzen uzten, baina, halere, egitura auto-nomikoen alde apustu egin zuten indar guztiek (EA eta ELA barne, esate baterako) bide hari eusten zioten.

Ondorengo konponbide prozesuen oinarria, berriz, marko juridiko-politiko auzitan jarri izana izan da, aldaketaren aldarrikapena ezker abertzaletik baino harago zabaldu baita. Nabarmen, Lizarra-Garaziko saiotik aurrera.

ERREGIMENA KOLOKAN

Hori da errealitatea gaur ere, «erregimena» kolokan baitago, Nafarroan, kasu, inoiz ez bezala. Are gehiago, Estatua bera oso krisi larrian dago, ustelkeriaren pipiak jota, krisiaren hurrengo astinaldiaren beldur eta «lurralde kohesioari» eutsi ezinik. Hain da larria krisia –krisi askotarikoa–, espainiar askok 1978ko erre-gimen sakratu eta gorai patua zalantzan jarri baitute, Podemos fenomenoak erakusten duenez. Aldea dago, bai. Aljerreko mahaian eseri baino bi urte lehenago, elkarriketaren bidea urratzen hasteko, ETak barne txos-

Bide bakarra dago: herri prozesu bat egituratzea. Baina jakin behar da horrek gobernu bat negoziazio mahai batean tiroka eserarazteko baino indar, esfortzu eta imajinazio handiagoa eska dezakeela.

ten batean haxe zioen: «Uste dugu Euskadik, epe motzean, ez dituela inola ere jauzi hori emateko [independentziarako urratsaz ari da ETA] beharrezko baldintza objektiboak betetzen, eta, halaber, epe horretan ez dela sumatzen Estatu espainolak eta agintean den blokeak krisirik izateko baldintza objektiborik».

Hortxe bada, gaur egun badira baldintza objektiboak aldaketa oso sakonak behartu ahal izateko eta aldaketa horiei irismen estrategikoa –independentziarantz– eman ahal izateko. Baldintza subjektiboetan eragin beharko dute halakorik gertatzea nahi dutenek, erronkari eusteko bide bakarra baitago: herri prozesu bat egituratzea. Herri babesa eta herri aktibazioa. Baina jakin behar da halako bide batek gobernu bat negoziazio mahai batean tiroka eserarazteko baino indar, elkarlan, esfortzu eta imajinazio handiagoa eska dezakeela. •



Ezkerreko irudian, Xabier Alvarez Yeregui eta Bego Arruti San Martin. Alboko argazkian, Altsasuko erloju denda baten erakusleihoan dagoen yereguitarren erloju bat. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ERLOJUGINTZA

Mendeetan orduak kontatu dituen kanpandorreko ondarea, ahaztuegi

📁 KULTURA / amagoia.mujika@gaur8.info

Han goian daude, kanpandorrean. Baina, nola daude mendeetan ordua eman duten erloju monumentalak? Batzuk txukun samar, beste batzuk geratuta eta gehienak, denboran ahaztuta. Ordua aldatuko den egunean, gora begiratu dezagun, ondare historikoaren parte ahaztuenetakoa diren erloju horietara.

Orduaren mende bizi gara. Orduaren kontra, askotan. Gaur gauean, ordua aldatuko da, goizaldeko hiruretan orratzak atzera egin beharko du, ordu biak arte. Aitzakia ederra da patxada hartu eta gure herrietako kanpandorreteara begiratzeko. Han daude, denboratik aparte, hainbeste mendetan ordua eman duten erloju monumentalak. Han goian daude, baina, nola daude? Denetarik topa daiteke, txukun zaindutakoak eta

eskailerapean hautsak hartuta daudenak. Izan ere, jakitun al gara kanpandorreteko erlojuak gure ondare historikoaren parte direla?

Herritarrei ordua jakinarazteko sortu ziren kanpandorreko erlojuak. Hasiera batean, hondarrezko erloju batean oinarrituta, herritarrek txandaka orduro kanpandorreko kanpaia jotzen zuten. Kontatzen denez, komentuetan gau osoa esna ematen zuten, goizeko otoitzetarako garaiz iritsi ahal izateko. Horregatik aurrerapauso oso garrantzitsua izan ziren kanpandorreko

erloju mekanikoak. Erloju mekanikoak burdinazkoak izaten ziren. Garai hartan metal hori eraldatzeko teknikak erremontariekin bakarrik ezagutzen zituztenez, horietariko asko erlojugintzan espezializatu ziren, horretarako betiko tailerrak eta tresnak erabiliz (sutegia, ingudea eta mailuak, batez ere).

Euskal Herrian erlojugile abilak eta sonatuak izan dira. Horien artean, yereguitarrek. 1760-1985 urteen bitartean Yeregui abizenak errementari eta erlojugileen bost belaunaldi eman ditu, Leitzatik Zumaiara.

Xabier Alvarez Yeregui eta bere emazte Bego Arruti San Martinek azken urteak erlojugintza klasikoaren bueltan eman dituzte. Xabierrek betidanik entzun izan du etxean yereguitarrek erlojugile bikainak zirela, eta Euskal Herriko kanpandorretean dauden pieza asko haiek eginak zirela. Hartara, behin jubilatuta, bere arbasoen arrastoa topatzeari ekin dio, Bego emaztea bidaide duela.

«Duela sei bat urte Zumaian bertako historia industrialaren bilketa egiten hasi ginen eta hortalde bat sortu genuen, Ziiz izenekoa –www.ziiz.org–. Duela bi urte inguru, bide beretik Begok eta biok pentsatu genuen erlojugintzaren inguruan ere bilketa egin behar genuela. Ni yereguitarra naiz eta lotura daukat alde horretatik», hasi da kontatzen Xabier.

Eta horrela iritsi dira Beteluko yereguitarrenganaino. Jose Francisco Yeregui Zabaleta (1760-1834) izan zen erlojugintzan abiatu zena. Izatez leitzarra zen, eta arotza. Sutegiko lanaz ez zekien ezer. «Bere kabuz, Leitzan ikusitako erloju bat kopia-tzen saiatu zen, eta egurrean erloju bat egin zuen. 1790. urtearen bueltan Iruñeko azoka batera eraman zuen erloju eta arrakasta izan zuen egurrezko erlojuak. Eta horrela animatu

zen errementari ofizioa ikastera». Horretarako, emaztea eta seme-alabak etxean utzi eta bi urtez Arruizko sutegi batean jardun zuen lanbidea ikasten.

Horrela abiatu zen erlojugintzan, ezagun samarra izateraino. «Egin zuen lehen erloju Beteluko izan zen. Enkargu berezia jaso zuen 1792. urtearen bueltan. Kanpandorrerako erloju egin behar zuen, baina berezitasun bat izan behar zuen: arratsaldeko hiruretan, hiruak emateaz gain, hogeita hamahiru kanpikada jo behar zituen Kristo arratsaldeko hiruretan eta hogeita hamahiru urte zituela hil zela adierazteko. Eta arratsaldean bakarrik jo behar zituen kanpikada horiek, ez gauean. Egin zuen erloju, eta herriak ordainetan sutegi bat eman zion Betelun, eta bere familiaren mantenuaren kargu egin zen bost urtez», kontatu du Xabierrek. Eta hor hasi zen yereguitarren historia errementari eta erlojugile gisa.

Beteluko erloju bitxi horrek urte askotan eman zuen ordua, harik eta alkateak, haserrealdi baten ondotik, kanpandoretik behera bota zuen arte. Hala kontatzen da, behinik behin, herrian.

«Jose Franciscoren erloju bat topatu dugu, 1804. urtean egin, Egiarretan (Nafarroa). Erloju oso orokor dago, baina geldirik. Prin-

cipe de Viana erakundearekin harremanetan jarri gara, erloju hori berreskuratzeke eta zain-tzeko beharra nabarmentzeko. Iruditzen zaigu ez dela zaila erloju hori berriz martxan jartzeara», agertu du Xabierrek.

Egiarretako erlojuak ez dauka esferarik, hasieran kanpandorreko erlojuak halakoak baitziren, esferarik gabeak, kanpaiak bakarrik zituztenak. Elizatik aparte bizi zirenek eta lanera sorora joaten zirenek ez zeukaten akaso erlojua beti begien aurrean, baina zeuden tokitik entzuten zituzten kanpaiak. Eta hori zen helburua. Gerora hasi ziren esferadun erlojuak egiten.

IRUÑEKO UDALEKO ERLOJUA

Jose Franciscoren semeak, Juan Manuek Yeregui Canflancak (1795-1848), aitaren bidea jarraitu zuen eta Iruñeko San Lorenzo elizarako erloju bat egin zuen 1827. urtean. 1849. urtean San Lorenzotik Iruñeko Udalera ekarri zuten erloju hori, eta 142 urtetan egon zen martxan. Alegia, 1849tik 1991ra bitartean yereguitarren erloju batek eman zuen Iruñeko sanferminak has-teko baimena. 1991. urtean erloju hori desmuntatu eta elektriko bat jarri zuten haren tokian.

Geroztik Iruñeko Udalaren lokal batean dago. «Ezin da esan jasota ez dagoenik, jasota dago lokal batean, baina ez oso egoe-ra txukunean. Eta beldur gara edozein egunetan baten bat etorri eta txatarrara botako duela. Iruñeko Udalarari eskutitz bat idatzi genion daukan altxorren jakitun izan dadin, baina, auskalo», salatu du Xabierrek penaz.

Benito Yeregui Goldaracena (1843-1912) 1870 urtearen bueltan Betelutik atera eta Agiñara (Usurbil) joan zen bizitzera. Bertan Martina Manterolarekin ezkondu eta bertako sutegian erlojugintzan segitu zuen. «Nire birraitona hamalau urte zituela hasi zen Beteluko sutegian lanean, errementari eta erlojugile bezala». Guztira 81 erloju egin zituen, «81. erloju hori Aizarnan dago», azaldu du Xabierrek. Eta 81 horietatik 38-40 inguru topatu dituzte Xabierrek eta Begok.



Aitor Villa eta Mikel Salbador, Hernanin daukaten tailerrean. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

KANPANDORRE ERLOJUAK, GALTZEN ARI DIREN ALT XORRAK BERRESKURATZEKO AHALEGINA

Kanpandorre Erlojuak enpresa berria da. Hernanin dauka egoitza eta begitan hartuta dauzka Euskal Herriko kanpandorreetan dauden erlojuak. Aitor Villak eta Mikel Salbadorrek osatzen dute proiektu berria. Villa erloju konpontzailea da, eta pasioz bizi du bere lana. «Beti izan naiz mainoso samarra eta gustatzen zait trasteekin aritzea. Erlojuen mundu honetan hasi nintzen duela urte asko eta horretan aritu naiz lanean. Jose Antonio Irulegi erloju konpontzailearekin aritu nintzen hamar bat urtean eta hura izan zen nire benetako maisua». Gerora, Lotus eta Festinako zerbitzu teknikoetan lan egin du urte askoan eta bere azken etapan, elizetako erlojuak konpontzen dituen enpresa batean aritu da. Hor sortu zitzaion erloju historikoekiko grina. «Guk erloju modernoekin egiten genuen lan, konpontzen edo zaharrak kendu eta berriak jartzen. Eta ikusi nuen nola hainbat eta hainbat erloju zahar, benetako altxorrak, abandonatuta zeuden».

Kanpandorreetara igoz deskubritu zuen Aitor Villak gure ondarearen zati bat erabat ahaztuta dagoela han goian, zaindu gabe eta ondarea delako batere kontzientziarik gabe. «Erloju mekanikoak dira, indar eragilea harri bat da, gurpil batzuekin eta pendulu sistema batekin lagunduta. Ez dago argindarrik

ez beste ezer. Benetan teknologia aurreratua da bere garairako eta erakusten du erlojugileen ofizioa ez zela samurra, jakintza arlo oso desberdinak menderatu behar zituztela», segitu du Villak.

Lilura horretatik eta ondare garrantzitsua bat galtzen ari delako sentipenetik sortu dute Kanpandorre Erlojuak. Eta horretan ari dira saiatzen, herriz herri erloju monumentalen egoera ikusi eta horien mantenuaren ardura hartu nahian. Baina, bidea ez da samurra izaten ari. Eta hori ondo daki herriz herri ate joka dabilen Mikel Salbadorrek: «Arazoa da askotan kanpandorreko erloju zahar hori zaharberritzea ez dela merkea. Askoz merkeagoa da erloju zahar hori kendu eta erloju elektriko bat jartzea. Gainera, krisi garaioan, erakundeek ez daukate dirurik, eta are gutxiago kanpandorreko erloju zahar horretan inbertitzeko».

Badaude alternatibak. «Beti aitzakia berdina da: dirurik ez dago. Udal bati proposatu genion erloju bat auzolanean zaharberritzeko aukera, Aitorren laguntzarekin eta aholkuarekin. Benetako altxorra daukate kanpandorrean eta benetan merezi du leheneratzea. Bada, auzolanaren aukerak ez zuen aurrera egin. Alegia, diruaren aitzakia ez dagoenean ere, bestelakoak jarri dituztela. Eta horrek erakusten du

orokorrean gure herrietan erloju historiko horiek ez direla batera baloratzen», segitu du Salbadorrek.

Berez, erloju monumental bat berreskuratzea ez da erraz samar egiten den lana: lehenbizi, kanpandorretik jeitsi eta toki egoki batera eraman behar da; desmuntatu, garbitu, pieza guztiak ondo ote dauden ikusi, beharrezko tratamenduak eman eta berriz muntatu behar da konponketa tailerrean; ondo dabilen frogatu eta, berriz, kanpandorrera. Eta kanpandorrean berriz muntatu, frogatu eta doitu. «Horrek guztiak 15.000-20.000 euroko kostua izan dezake. Horregatik proposatu ohi ditugu bestelako alternatibak, errazagoak eta merkeagoak. Baina maiz alternatiba horiek ere ez dute aurrera egiten. Erloju horiek ondare historiko garrantzitsua dira, eta hori ez da ulertzen», esan du Villak.

Askotan, udaletara jotzen dutenean erakundeen arteko nahasmena da topatzen dutena. «Askotan gertatzen da: udalak esaten du erlojua Elizaren ardura dela eta Elizak, alderantziz. Inork ez daki oso seguru zein arduratzen den erlojuaz eta maiz auzotarrek edo herritarrek zaintzen dute erlojua borondatez», kontatu du Salbadorrek.

Liskarren ginetik, Kanpandorre jarraituko du gure herriko ondare diren erloju mekanikoen alde lanean.

«Gure helburua ahalik eta erloju gehien aurkitzea da, eta erloju horiek berreskuratzeke moduak topatzea», segitu du Begok.


Izan ere, orain arte ikusitakoa nahiko «penagarria» dela aitortu dute. «Orokorrean ez dago erloju monumentalak ondarearen parte direnaren kontzientzia eta maiz egoera tamalgarrian topatu ditugu. Belgikan eta Suitzan izan gara bidaian eta beste mundu bat da. Herrialde horietan erloju monumentalak ondarearen parte oso garrantzitsua dira eta kontu handiz zaintzen dituzte. Belgikan, esaterako, bada aditu batzorde bat, Gobernuak berak hautatutakoa, eta erloju monumental guztien zaintza horien esku dago. Inork ezin du erloju bat ukitu batzorde horren zaintzarik edo onespenik gabe», azaldu du Begok.

Esan bezala, Euskal Herrian panorama oso bestelakoa da. Erloju mekaniko zaharren tokian erloju elektrikoak jarri dira kanpandorre askotan, erosoagoak eta zehatzagoak direlakoan. Eta ondarearen parte garrantzitsua diren erloju monumentalak bazter batean botata geratu dira askotan edo, kasurik okerrenean, zakarretan.



Oso argigarria da, esaterako, Altsasuko erloju denda baten erakusleihoan dagoen Benito Yereguiren erloju batek egin duen bidea. Erloju dendako jabea kanpora atera zen egun batean, zigarro bat erretzera. Eta dendaren kanpoaldean zela, han ikusi zuen ijito bat eskorga goraino beteta zetorrela. Erloju dendakoa berehala konturatu zen ijitoak zeraman hura erloju bat zela, eta balio handikoa gai-

Altsasuko erloju denda batean dagoen Benito Yereguiren erloju bat eskorga batean zeramaten txatar biltzailearengana. Erloju dendako jabeak urrezko eraztun batekin trukatu zuen

Erloju monumental asko auzotarrek zaindu dituzte borondatez eta auzolanean. Hala ere, erloju horiek zaintzeko zenbait ezagutza behar dira eta mantenua beti ez da egokia izan



Goiko aldean, Aranoko erlojua. Erdiko argazkian, 142 urtez Iruñeko Udalean egon dena eta behean, Egiarretakoa, 1904. urtekoa. GAURB



nera. Ijitoari aipatu zion eskor-gan zeramana erosteko aukera eta hark ezetz, txatar biltzailearekin hitzartuta zuela negozioa, eta ondo ordainduko ziola gainera, “txatarra” ona zelako, brontzea eta burdina tartean. Erloju dendako jabeak, baina, interes berezia zuen “txatarra” harekin, eta urrezko eraztun bat eskaini zion trukean. Horrela lortu zuen erlojua bereganatzea. Garbitu, desmuntatu, txukundu eta bere dendako erakusleihoan dauka jarrita zakarretatik salbatutako pieza baliotsua. «Pentsatzekoa da erloju monumental askok amaitu dutela txatarra artean. Altsasuko adibidea oso esanguratsua da», iritzi dio Begok.

AUZOLANEAN ZAINDUTAKOAK

Erlojugileak jakintza desberdina-
nak menderatu behar zituen; matematika, mekanika, kalku-
lua... ez zen lanbide erraza. «Ha-
siera batean erloju batetik bes-
tera alde handirik ez dagoela
dirudien arren, erlojugile bakoit-
zak bere estilo propioa zuen. Zuma-
iako Artadin nire birraitona-
ren erloju bat leheneratzen ari
gara, 1901. urtekoa. Berak di-
seinatu zuen erlojura hurbil-
tzen ari gara, baina ez da erraza
zehatz berak bezala martxan
jartzea», kontatu du Xabierrek.

Izan ere, urteen poderioz erlo-
juak narriatzen joaten dira, «be-
har ez den olioia eman diotelako,
koipea eman diotelako behar ez
zen tokian, auzotarrek hau edo
bestea konpondu diotelako, 40
kiloko harria zegoen tokian 50
kilokoa jarri diotelako.... Pixka-
naka erloju horien mekanika
okertzen eta hondatzen joan da
ez dituztelako behar bezala
zaindu», segitu du.

Izan ere, erloju monumental
horien zaintza maiz auzotarrek
beren gain hartu dute, boronda-
te onenarekin eta batzuetan
ezagutza gutxirekin. Badira gar-
bigailu baten motorraren lagun-
tzarekin funtzionatzen ari diren
erloju historikoak.

«Berez erakundeek zaindu eta
mantendu behar dituzte erlo-
juak. Baina, askotan, hala gerta-
tzen ez denez, auzotarrek edo
inguruko herritarrek hartu dute

beren gain ardura hori. Borondate onenarekin egin dute eta auzolan horri eskerrak martxan jarraitzen dute zenbait erlojuk. Baina pieza horiek zaintzeko gutxieneko ezagutza bat behar da», esan du Xabierrek.

Normalean erloju monumentalei giltza eman behar zaie hiru eta zortzi egun bitarteko maiztasunaz, erlojuaren arabera. Eta herritarrek sistema desberdinak asmatu dituzte giltza emateko tarte luatzeko. Izan ere, aldiro kanpandorrera igo eta giltza ematea ez da lan makala, are gehiago borondatezkoa denean. Hortik garbigailuen motorrak eta antzeko asmakuntzak.


YEREGUI ELKARTEA

Erlojugintza historikoaren inguruan hutsune handiak daude; erlojuak ez dira ondarearen parte bezala hartzen eta altxor gehiegi daude bazter batean botata. Egoerarekin kezkatuta, 2014ko apirilaren bueltan Yeregui Elkartea sortu zuten. «Konturatu ginen erakundeen aurrean pertsonak, norbanakoak, indar gutxi dugula. Indarra egitekotan eta zerbait lortzekotan elkarre bat sortu behar genuela konturatu ginen», azaldu du Begok.

Elkartea kezkatuta dago Euskal Herriko erloju monumentalen egungo egoerarekin eta etorkizunarekin. «Erloju horiek jasotzeaz, berreskuratzeaz eta zaintzeaz arduratu nahi dugu. Orain artean erloju asko galdu dira, eta aurrerantzean halakoak gehiago ez gertatzea nahi dugu», jarraitu du Xabierrek.

Denboran ahaztua eta baztertua dagoen ondarea ezagutu, berreskuratu eta baloratu nahi du Yeregui Elkartek, «askotan izan dugu ja beranduegi iritsi garelako sentipena. Zenbat erloju galduko ziren dagoeneko. Baina egia da geratuta ere erloju asko daude, kanpandorrean geratuta. Eta hor dauden bitartean ez dira galdu», segitu du Xabierrek.

Horretan jardungo dute lanean: kanpandorrean gordeta dagoen gure ondarearen zatia berreskuratu, gorde eta herritarrei maitatzen erakutsi.



Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

BERAKO ELIZAKO ERLOJUA

Maidar Iantzi Goienetxe

Boluntarioek zaintzen dute 1892ko taupadak dituen makinaren bihotza

Herriko paisaiaren parte inportantea da. Han izan dugu beti eta, agian, horregatik ez dugu ikusi. Berak bai, gure mugimendu guztiak zaindu ditu kanpandorretik, dena ikusten baita han goitik, nahiz eta gu ez konturatu. Kanpotik erran behar izan digute berezia dela Herriko Plazatik 165 eskailera igo eta bisitatu dezagun.

Bost solairutan barna, “Hugo” Martin Scorsesen pelikulan sentitu gara. Xarma hori sumatu dugu. Andoni Andueza gaztea izanen litzateke 1930eko hamarkadan Parisko erloju baten barrenean bizi den mutikoa, Angel Telletxearekin batera. Andueza herriko albintea da eta Telletxea jubilatua. Biak dira Berako elizako erlojuak zaintzen duten boluntarioak.

Filmean baino atzerago bidaiatuko dugu, 1892. urtera, ordukoa delako erloju, Francisco Arrieta Elzaurdia alkate zen garaikoa (hala dago idatzita plakan). Gaur egun gure herrietan erlojuak zein egoeratan dauden kontuan hartuta, bereziena martxan

egotea bera da. 1892an bezala, bi eguneko bidea egiten du penduluak, bi egun kostatzen zaio jaistea.

Gazteak azaldu duenez, herri aunitzetan ordenagailuak jotzen ditu ezkilak eta antzinatasun eta balio handiko makinak geldirik daude. «Erosoagoa da beitiko bulegotik egitea. Ez dago olioia eman beharrik eta zer edo zer izorratzen bada goititu beharrik». Ezkilak automatizatuta daude eta erlojuak bizirik egotea bera da arraroa. Baina bizirik egotetik harago, Cuencan, Motilla del Palancar herrian, Lorenzo Redondo erlojugileak sortu zuen eta Berako Udalarena den ondareak baditu berezitasun gehiago.

Hamabiak pasata sartu gara kanpandorrean eta, lehendabizikoz, barrenetik aditu ditugu 12:15eko kanpaiak. 250-300 kiloko ezkila “ttikiek” jotzen dituzte laurdenak eta 2.200 kiloko handiak puntuak. Ezkila handia 1610-20 urtekoa da. Ezkila ttiki ilarak daude leiho baten ondoan. Bertan, Llorenç Barber artista

valentziarrak kanpai kontzertua eman zuen Ertz jaialdiaren barruan, 2006an.

Ekaitza herritik botatzeko ezkilak
Ezkila bereziez solasean, Santa Barbara aipatu du Anduezak. Ekaitzen zaindariaren izena daraman kanpaia jotzen zen garai batean trumoi zenean, hau herritik botatzeko... zehazki, ondoko herrira, Lesakara. Sakristauak ezkila astintzen zuen bitartean, erretorea eliza barrenean egoten zen gurutzea eskuan errezoan. Istorio eta historia zaharrekin segituz, karlistaldian 23 karlista kanpandorrean babestu ziren eta oraindik ikusten dira leiho batean liberalen tiroen zuloak. Munizioa bukatu zitzaizen karlistei eta ezkilen sokak baliatuz rappel eginez iritsi ziren mendi kasko batera, gaur gaztetxea den Kaxernara. Bidean tiroketa izan zen eta 23tik bat hil zen.

Baina itzul gaitezen erlojura. Pisu, mailu, gupil, pendulu eta ezkilek osatzen dute tik-taka. Pisuak indarra ematen dio mailuari. Altxatu eta askatu



Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

egiten du ezkila jotzeko. Aldi berean, gurpilek mugitzen dute mailua. Gurpilaren bira batek 75 segundo irauten du, orduan, lau bueltarekin bost minutu egiten ditu. Eta buelta eta buelta dabiltzan paletak ezkila jotzearen abiadura kontrolatzen dute. Udan, beroarekin olioia arinago, urtuago egoten da eta erlojuak erraz jotzen ditu ezkilak. Hain erraz, azkarregi egiten duela. Orduan, paletak nahiko zuzen jartzen dira aireak geldiarazi eta kanpaiak mantsotzeko. Neguan, alderantziz gertatzen da: olioia lodiago dago eta paletak etzan egiten dira pixka bat ezkilak geldoegiak ez izateko.

Informazio hori guztia herritarrok ikusten dugun esferara transmititzen du makinak. Garai batean egurrezkoa zen eta gaur egun zeharrargiari esker arratsez ere ematen du ordua.

Erlojua kokatu aitzinetik lan handia egin behar izan zuten zoruak berdintzeko, solairuak guztiz zuzena izan behar duelako. 1996an garbigailu motoreak txertatu zizkioten pisuak altxatzeko. Ordura arte albinteak egin behar zuten.

BISITATZEKO AUKERA

Alemaniko erloju atomikoak markatzen ditugure denbora ofizialak eta harekin sinkronizatua dago Berako makina ere. Elhuyar Zientziaren Komunikazioak esplikatzen duen bezala, segundoak zenbat irauten duen definitzeko atomo bibrazioa erabiltzen da: «Segundo bat, zehatz-mehatz, zesio-133 atomoak 9.192.631.770

aldiz bibratzeko behar duen denbora da». Zesioaren bibrazioak kontatzen dituen makina da erloju atomikoa. Denbora neurtzeko sistemarik zehatzena da, segundo bateko errorea besterik ez baitu sortzen 30 milioi urtean.

Ez da erraza torloju eta palanka dantza azaltzea, hobeki da ikusi eta entzutea, eta horretarako aukera dago Beran. Bisita batzuk egin izan ditu Anduezak eta interesa duenak udaletxera deitu eta ateak irekiak izanen dituela erran digu. Aitortu duenez, beldur pixka bat eman zion hasieran hainbertze palanka artean sartzeak, baina lanik handiena olioia ematea dela ikusi du. Angel Telletxea jubilatua goiz oso bat hartu eta lasai-lasai egiten du, hilabetea behin. Ordu aldatetaz ere bi boluntarioak arduratzen dira.

Bisita normalean erakusten ez den txoko bat ikusiz bukatu dugu, kupula gainetik paseatuz. 1500. urtekoa da, harriz egina. Gaztelu izandako eliza honek bertze aldean zuen antzina dorrea, baina Altzatekoak kexatu egin ziren ez zituztelako ezkilak aditzen. Horrekin batera, tximista bat gainera erori eta lehertu egin zuen dorrea. Egoera horretan, XVII. mendean eliza handitu zutenean, dorrea ere orain dagoen lekura aldatu zuten.

Erlojugilerik bisitan etortzen ez zaion erloju hau tarteka gelditzen omen da. Orduan, boluntarioek giltza askatu eta ezkilak geldituta orduan jartzen dute. Lardaskan ibili eta gero gertatzen omen da, beraz, beratarrek zerbait arraroa ikusten baduzue, badakizue...

Glamourra ala oroimena

Antton Izagirre

Donostia Zinemaldian “Lasa eta Zabala” filmaren emanaldian zuzendaria eta protagonistak txalo zaparradaz agurtu zituen ikusle jendeak, egindako lan onaren seinale nonbait. Horrelakoetan ohikoa den moduan flashak, argazkiak, glamourra fikziozko protagonistentzat izan ohi dira eta filmaren kontaketa atzean ezagutzera ematen den drama eta egia bigarren mailan geratu ohi dira.

Ia hilabete geroago Tolosan eginitako filmaren aurre-estreinaldian benetako protagonistek bete dute agertokia. Duela hogeita hamaika urte torturatu eta hil zituzten gazte tolosarren gurasoak agertu dira jendaurrean eta aretoa bete ikuslek txalo zaparrada luzez oroitu eta eskertu dute urte luze hauetan erakutsitako duintasuna, eta merezitako aitortza jaso dute. Bi emanaldi, bi testuinguru, gertakari beraren fikzioa eta egia, kontaketa eta errealtatea, glamourra eta oroimena, zein baino zein indartsuago; ikustear dago zein gailenduko den ala biek izango duten merezitako arrakasta.

Filmaren emanaldiarekin paretsu, ETak su etena eman zuenaren urteurrenaren harira Urkulluk eta Jaurlaritzak egindako minaren barkamena eskatzera deitu dituzte batzuk eta besteak. Hitz horien oihartzuna itzali baino lehen askori datorkigu oroimenera EAjak eta Jaurlaritzaren erabakiek eragindako mina.

Noizko Lasa eta Zabala familiei barkamena eskaera Tolosako hilerrian edo Hondarribiko aireportuan eginitako minaz? Noizko barkamena sakabanaketa babestean milaka familiari eragindako minaz? Noizko barkamena Ertzaintzak polizia etxeetan eragindako tratatu txarraz? Noizko...?

Besteei egindako eskaeren legimititatea irabazteko norik berea egin behar. Guztiok behar dugu oroitu eta den-dena. •

IKASTEAREN KOSTUA

Krisia dela eta, unibertsitate ikasketak egitea erronka nekeza da askorentzat

 **HEZKUNTZA** / Iraia OIARZABAL MUJKA

Ikasi nahia eta ezina; horixe da gazte askok gainean daramaten zama, krisiak sortutako larritasun ekonomikoen ondorioz, unibertsitate matrikula ordaintzerik ez daukatela ikustean. EHUk badu diruz estu daudenei malgutasun apur bat emateko funts bat, baina tasak eta baldintzak gora doazen honetan ibilbide motzeko irtenbidea da.

Unibertsitate ikasketak gauzatzea ohikoa eta gehiengoaren eskura da-goelako ustea nagusitu da gaur egun euskal gizartean, belaunaldi berrienetan batez ere. Euskal Herriko campusetan gazte andana ikusten dugu. Mugimendua, bizitasuna eta jakin-mina antzematen dira. Horrek, ordea, ez du ezkututzen karrera unibertsitario bat ikastea erronka izugarria dela gazte askorentzat. Ez soilik intelektualki, garunak urte horietan egin behar duen lanagatik. Ekonomiko-ki ere desafio bihurtzen hasia da batzuentzat.

Krisi ekonomikoa eta azken urteetan unibertsitateko matrikuletan emandako gorakada konbinazio txarra dira ikasketak gauzatu nahi dituzten familia xume askotako seme-alabentzat. Langabeziak, lan erregulazio espedienteek eta gizarte murrizketek larritasun ekonomikora eramane dituzte sendi asko. Eta zer egin ikasketak ordaintzea ezinezko bihurtzen denean? Kasurik okerreanean egoera horrek ikasketen bidea uztera kondentzen ditu ikasleak. Ohiko beketatik harago, estualditik irteteko zirrikitu bat badago, ordea, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) Gizarte Funtsa izenarekin bataiatu duena.

Maite Zelaia EHUko Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren errektoreordeak azaldutakoaren arabera, joan den ikasturtean detektatutako larrialdi egoera bati erantzuten dio funts honek. Izan ere, aurre-

ko urteekin alderatuta matrikula ordaintzeko zailtasunak zitu- en ikasle kopuru bat bazegoela ikusi zuten eta ez ordaintze horien erreklamazioari ekin zioten. Aldi berean, egoera ekonomiko berezi batek eragindako huts egitea zela kontuan izanik, horri irtenbidea jartzeko baliabideen bila hasi ziren.

«Deialdi honek bilatzen duena da ikasketen ordainketa egiteko zailtasunak izan dituzten ikasleek unibertsitatearekin duten zor hori dirutan —epeka ordainduta— edo jarduera ezberdinen bidez kitatzeko aukera ematea», dio Zelaiak.

Deialdia 2013-2014 ikasturtean jarri zen martxan aurrekoan sortutako zorrei aurre egiteko, eta kurtso honetan ere abiarazi dute, tresna honen beharra daukaten ikasleen eskaera mantentzen zela ikusirik. Lehenengo deialdian 23 ikasleren eskakizunak onartu ziren. Aurten, aldiz, jasotako 46 eskarietatik 29 onartu dira. Hau da, antzeko kopurutan ari dira mugitzen, baina datuei erreparatuta, laguntza horri hel-

du dioten ikasleak nahiko gutxi direla ikus daiteke.

Tresna honekiko dagoen informazio falta izan daiteke eskari txiki horren arrazoietakoa bat, Iker Martin EHUko Ikasleen Kontseiluko presidenteak aipatzen duenez. Bere ustez, garrantzitsua da Gizarte Funtsaren oinarriak ongi ezagutzea, hasiera batean bere helburuak gaizki ulertu baitziren ikasle askoren artean, ohiko beka edo diru laguntza bat zela pentsatuz. Beke- na, ordea, Eusko Jaurlaritzaren eskumena da eta ez unibertsitatearena.

USTEKABEKO ARAZOAK

Funtsaren xedea bestelakoa da, hots, ikasturtean zehar izandako arazo ekonomikoak direla medio matrikula ordaintzerik izan ez zuten ikasleei zenbait erraztasun eskaintzea.

Gizarte Funtsa arautzen duten oinarriei erreparatuz, gero, «bata- batean sortutako edo denboran zehar dirauten arazo ekonomiko- koei» erantzuteko baliabide bat dela azpimarratzen da. Gauzak

Hainbat ikasle unibertsitate-
sartu ahal izateko selektibitate
azterketa egitera sartzen 2013ko
deialdian.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS



«Ezin da ikaslea gehiago estutu, inbertitu egin behar da. Ez bada horrela egiten, jendea desmotibatu egiten da eta biharamunean profesionalak izango liratekeenak ez dira horretara iritsiko. Eta hori bai dela krisia»

«Deialdi honek bilatzen duena da ikasketen ordainketa egiteko zailtasunak izan dituzten ikasleek unibertsitatearekin duten zor hori dirutan edo jarduera ezberdinen bidez kitatzeko aukera ematea»

horrela, ikasleak ustekabeko arazo ekonomikoak dituela ulertuko da baldin eta ikasturtea hasita ondoko egoeraren bat suertatu bazaio: familiako sostengatzaile nagusia hil izana, nahitaezko erretiroa hartu behar izana edo kide horri lanerako ezgaitasun iraunkorra eman izana; familiako sostengatzaile nagusia langabezian geratzea edo enplegu erregulazio espedienteak eraginda egotea edota familiako kideren batek gaixotasun edo istripu larriren bat izatea. Ustekabez eman daitezkeen arazoak eta ikaslearen behin-behineko etorkizuna estualdian jar dezaketanak.

Ikaslea egoera berezi batean murgilduta dagoela kontuan izanda, unibertsitatearekin daukan zor ekonomiko hori bueltatzeko bideak malgutzea erabaki zuen EHUK joan den ikasturtean. Horrela, zorra dirutan eta epe ezberdinetan edo unibertsitatean egingo dituen jardueren bidez ordaintzeko aukera izango du ikasleak.

Jardueri dagokionez, ikaslearen ikasketak errespetatzea eta nolabaiteko erantzukizun sozial bat betetzea bilatzen dute. «Aurreikusita dauzkagu beraien ikasle jardueratik gehiegi aldenduko ez dituzten ekintzak. Hau da, aukeren artean sartzen ditugu aurretik aukera askeko kredituetan funtzionatzen zuten jarduerak», zehazten du errektoreordeak.

Adibide modura, ikasle batek lasterketa batean bidea moztuz,

dortsalak banatuz edo parte hartzaileen izen abizenak zerrendatuz ordaindu dezake bere zorraren zati bat. Izan daiteke baita ere unibertsitateak antolatutako jardunaldietan prestaketa lanak egiten edota, esaterako, informatikan trebeak diren ikasleen kasuan, ekitaldietako diplomak diseinatzen. Ekintza horietan betetzen duen lan ordu bakoitzeko unibertsitatearekin daukan zorreko hamar euro kitatuko ditu ikasleak.

«Betiere, ikasleekin kontratatzen da ea ekintza hori egiteko prest egongo liratekeen. Saiatu gara, halaber, ikasle hauek jarduerak beraien zentroetan gauza ez ditzaten. Ikasle kontseilutik datorren eskakizun bat da, ikasle horiek estigmatizatuta egon ez daitezen», gaineratzen du.

KOPURUAREKIN BUELTAKA

Jardueren bitartez ordaintzen ez den zorraren gainerakoa dirutan ordaindu beharko du ikasleak. Zenbait kasutan zorraren %100 dirutan ordaintzea erabakitzen dute. Kasu horretan, hileroko kuota batzuk ezartzen dira eta horiek transferentzia bidez ordaintzen zaizkio unibertsitateari.

Funtsera bideratutako diru kopuruari dagokionez, hasiera bateko aurreikuspenetatik azkenean ezarri dena tarte nabarmena dago. Laguntza eskatu duten ikasleen kopurua txikia izateak hasieran planteatutako kopuruarekin sobera edukitzea ekarri du.



Gizarte Funtsa sortu zenean, EHUK 250.000 euro bideratzea aurreikusi zuen, baina eskaerak eta beharrak aztertu ondoren kopuru hori 100.000 eurora jaistea erabaki zuen. «Ikusi genuen ordaindu gabe zeuden matrikula askoren kasuan martxotik uztaile bitarteko tarte hori aprobetxatu zela ordainketa gauzatzeko eta hori modu positiboan baloratzen dugu. Interpretatu genuen familien aparte-ko ordainsaria kasu askotan horretara bideratu zela eta, hortaz, badagoela euskal gizartearen konpromiso bat familietan seme-alaben ikasketei lehentasuna emateko», ondorioztatzen du Zelaiak.

Hori dela eta, aurreikusitako 100.000 euro horietatik zati bat

bakarrik erabili behar izan zuten, deialdian onartutako ikasleek unibertsitatearekin zeukaten zorra 35.000 euro ingurukoa baitzen. Kopuru horretatik, %50 jarduerekin estali zen eta beste 17.000 euroak dirutan ordaindu zituzten zordunek. Aurtengo deialdira lehengo urteko aurreikuspen berdinarekin joan da unibertsitatea, baina zorra antzeko kopurutan mantendu da, 40.000 euro inguruan. Beraz, aurten ere aurreikusitako diruaren erdia baino gutxiago erabiliko da.

Unibertsitatearentzat funts honen finantzaketak suposatzen duenaren inguruan honakoa adierazten du Zelaiak: «Kontuan eduki behar dugu bueltatu beharreko laguntzak diren heinean poltsa hori urtetik urtera badoa-

la elikatzen, baita hilabetekako ordainketa horiekin ere. Galtzen den diru kopurua zein den? Jardueretan joaten zaiguna eta unibertsitateak horien bidez kobratzen duena. Hori da nolabait unibertsitateak bere gain hartu beharko lukeen kopurua», azaltzen du.

IKASKETAK UZTEKO ARRISKUA

Poltsa horretara bideratutako dirua nahikoa den ala ez aztertze-ko garaian, ikuspuntu ezberdina-
nak agertzen dira mahai gainera. Izan ere, tresna hau sortu zene-
tik igarotako bi ikasturteetan emandako eskakizun kopuruari erreparatuta, 100.000 euro horiek nahikoa direla esan daiteke. Baina ezin da ziurtatu diru la-
guntzaren beharra daukaten



Ikasle taldeak EHUKo Donostiako Ibaetako campuseko zelaietan atsedendia egiten.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

guztiek eskatuko balute nahiko izango litzatekeen edo ez.

«Datuak ikusita, objektiboki esan daiteke nahikoa dela. Baina gauza ez da egon diren 40 eskaera horiek asetzeko iristen dela, baizik eta diru kopuru nahikoa litzatekeen tresna hau benetan ikasle guztiek ezagutu eta egoera horretan dauden denek eskatuko balute», planteatzen du Martinek.

Zelaiak baikorrago begiratzen dio egoerari eta hurrengo galdera botatzen du: «Erreskatatu diren 30 lagun hauekin zer gertatuko litzateke fondoaren existentzia gabe? Ez dakigu. Beharbada unibertsitatea utziko luketen pertsonak dira, ez dakigu. Badakigu hauek ikasten jarraitu dutela eta aurtengo eska-

rietan iaz ere aurkeztu ziren pertsonak daudela. Hortaz, horrek esan nahi du pertsona horiei baliabide ekonomiko hau emanda euren karrera unibertsitarioa bideratzeko aukera ematen ari gara», ondorioztatzen du.

Ildo horretan, ikasleei erraztasunak ematearen beharra nabarmentzen du. Izan ere, krisi egoerak familia asko kinka larrian jartzeaz gain, beken arloan emandako aldaketek ez dute egoera errazten. Ikasleen Kontseiluko presidenteak azaltzen duenez, bigarren eta hirugarren matrikulak garestitu egin dira. Bigarrena %15 igo da eta hirugarrena %30 inguru. Lehenengoak KPlaren mailan jarraitzen du. «Jendeak nabaritu du igoera hori, ez da sinbolikoa izan», gaineratzen du.

Gauzak horrela, matrikulak epeka ordaintzeko aukera egoitea Ikasleen Kontseilutik azken urteetan egindako eskaera nagusietako bat da. Ikasleentzako erraztasun nabarmena izateaz gain, beste toki batzuetan egiten dela gogorarazten du Kontseiluak, zenbait kasutan ordainketa epe horiek hamar ere izan daitezkeelarik.

Duela urte batzuk, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hiru epetan ordain zitekeen unibertsitate matrikula baina kontabilitate arazoak direla medio aukera hori kentzea erabaki zuen EHUK. «Horrek unibertsitateari diruzaintza arazoa sortzen dio, ordainketa formula horrek suposatzen baitu unibertsitateak bere baliabide ekonomikoak ez dituela ezagutuko ikasturtea bukatu arte», azaltzen du errektoreordeak.

Beken kasuan, hauek eskuratzeko baldintzak nabarmen gogortu direla ohartarazten du Kontseiluko arduradunak. Beste baldintza batzuen artean, beka lortu ahal izateko batez besteko nota igo egin da. Unibertsitateko lehen ikasturtetik aurrera diru laguntza mantentzeko gainditu beharreko kredituen kopuruak ere gora egin du.

Horren harira, ikasleekiko politika baikorragoak egon behar liratekeela uste du Martinek. «Ezin da ikaslea gehiago estutu. Are gehiago, inbertitu egin behar da. Ez bada horrela egiten, jendea desmotibatu egiten da eta biharamunean profesionalak izango liratekeenak ez dira horretara iritsiko. Eta hori bai dela krisia», kexatzen da.

IKASLEEN ADOREA

Testuinguru horretan, krisi ekonomikoak eta diru laguntzetara iristeko zailtasunak estututa, ikasleen artean bi jarrera nagusi dira. Batetik, etsita ikasketak utzi edo, zuzenean unibertsitateko joateko aukera planteatu ere egiten ez dutenak daude. Beste batzuk ahal duten moduan egokitzen dira estutasunera, eta diru laguntzen faltan ikasketak gauzatu ahal izateko euren formulak bilatzen dituzte.

«Zorionez, hala esaterik bada, ez daude horrenbeste ikasle ikasketak utzi behar dituztenak, ezin dituztelako ordaindu. Askok nolabait bere planteamen- duak berrantolatu dituzte beren egoeraren arabera. Adibidez, badaude kurtso osoa egin beharrean hiru laurdenak egiten dituzten ikasleak. Motelago joaten dira errazagoa zaielako», azaltzen du Martinek.

Kasu hauek badute irakurketa baikor bat, batik bat ikasleen irmotasunaren inguruan. Adibide horiek erakusten dute ikasten jarraitzeko gogoak eta nekaezintasunak ekonomikoki ematen diren gabeziei irabazten dietela.

Baina badu bere alde ezkorra, argi uzten baitu egungo sistemak ez duela bermatzen edozeinek ikasketetara sarbidea edukitzeko baldintza. Martinek argi azaltzen du zein izan beharko litzatekeen egoera: «Hau ez da irtenbide bat. Pertsona batek lau urteko gradu bat aukeratzen duenean aukera izan behar du epe horretan egiteko. Ezin da muga ekonomikorik egon horretarako. Hau da, ikaslea da ahalegina egiten duena, baina administratibotik etorri beharko lukeen esfortzua da».

Ikasleei zuzenean galdetuta, Gizarte Funtza ez da bereziki ezaguna. Hala uste dute Anderrek, Leirek eta Nuriak, Ibaetako campusean atsedendia egiten ari zirela gaiaren inguruan galdetzean. Arestian aipatutakoaren harira, ikasle bakoitzak babak eltzetik ateratzeko zer egin badakiela nabarmendu zuen. Alegia, beharrak eskuragarri dauden laguntzen inguruan informatzera eramaten duela bat.

Krisiak ikasketak burutzea zaildu duela nabaria dela aipatzen dute, baina egoera errazteko unibertsitateak eta instituzioek egin beharko luketen ahaleginarekin batera ikasleek dauden tresnen inguruan informatzeko joera handiagoa beharko luketela uste dute.

Ikastea ahalbidetuko duen neurri oro ongi etorritzat daukate ikasleek, betiere, pribilegio izatetik urrun, hezkuntza eskubide eta etorkizuneko berme baliotsua dela ahaztu gabe.



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Egiak

Nik ez dauzkat hogeita hamaika urte. Nik isiluneak dauzkat, galderei ihes egiten zieten begiradak, «helduen gauzak», trapu bat sukaldeko urak bustitako eskuak urduri lehortzen, zerbait ahaztu eta kolpera mahaitik alde egiten duten pausuak eta ikarak eta beldurak eta hotzikarak, etxeko isiluneetan esne errearen usaina bezala zabaltzen diren sentsazioak, etxeko hormetan itsasten direnak, gauetako linternetxoan, izaretan, arropetan eta, azkenean, begiradetan ere bai. Nik ez dauzkat hogeita hamaika urte, baina ikararen gauak ilargi asko hustu ditu ordutik.

Egiantzak ez du egiarik izaten askotan, bertsio ofizialek ez duten bezala. Egiak marjinetan idazten baitira askotan, edo hitzen artean, edo behera begiraten duenaren zapatapean. Guk ez genuen GAL ezagutu, baina ezagutu genuen; izenik ez zeukaten izen asko ezagutu ditugu urteak joan ahala; umetan entzundako esaldiak elkarri lotzen aritu gara, memorian *collage*ak osatzen eta pixkanaka osatu dugu nork gure egia. Inork ez zigun bere-rik kontatzen, gogorregia egingo zitzaigulakoan, zauritu egingo gintuelakoan. Aurpegiak asmatu dizkiegu izenik ez zeukaten, eta izenak jarri aurpegi-rik ez zeukatenei. Baina argiak itzaltzen nitueneko sentitzen nuen ikara bat, zalantza bat, “zergatik” bat: zergatik hainbeste isiltasun, hainbeste amorru, hainbeste gorroto? Nork eraman zituen, nork torturatu, nork hil? Eta “nork” horrek lo egiten al zuen gauetan, auzokoak agurtzen al zituen igogailuan gurutzatzen zirenean, zer esaten zien haurrei lane-rik itzultzen zenean, idatzi al zuen maitasun gutunik sekula, ez ote zuen sekula mundu hobe bate-

kin ametsik egin... Galdera ikurrik gabeko galderak; argien itzalak ezagutzen hasi nintzenean itzal guztiei argiak jartzeko obsesioa piztu zitzaidan. Zapatalak lotzen ikasi nuenean pentsatu nuen bizitza horixe zela: lokarriak hartu eta elkartzea, korapiloak sortzea.

Lotu gabeko korapilo batek ekarri nau gaur hona, zinema areto honetara, ni bezalako hainbesteren aldamenara. Bada- kit sabela mugituko zaidala, galderak sortuko zaizkidala, baina hemen egon nahi dut, orain dela hogeita hamaika urte egon ez nintzelako. Urteotako isiltasun-ek ezkututzen zutena ikusi nahi dut; zerk ikaratu nauen, zerk isilarazi nauen. Egiak ez du egiantzarik izaten ordea. Argirik gabeko itzalak ikusi ditut pantaila batean, nire butaka gorritik, nire iluntasunetik. Esne errearen usaina sentitu dut berriro sudurzuloetatik barrura sartzen, goragalea, aspaldi ahaztuta neukan dardara bat sabelean eta galdera ikur formako korapilo bat eztarrian. Erantzun- en bila etorri naiz, baina galderak bai- no ez ditut aurkitu, sufrimendua. Ikusi nahi dut, baina begiek ezetz esaten dida- te, gehiegi dela, gogorregia dela.

Zer da egia? Zer da egia fikzioa erre- alitatea baino sinesgarriagoa denean; zer da egia fikzioen batura bat baino, eta fikzio bakoitza odolez kargatuegi daukagu, amorruz karga- tuegi, leloz (ez lemaz soilik) karga- tuegi. Egiak ez du egiantzarik, egiak ez du errukirik, egia La Cumbre jaure- giko soto beltz bat da, eta poltsa bel- tzak, elektrodoak, bainera herdoildu bateko ur izoztua, aulki bati lotutako eskuak estutzen dituen plastikozko zinta, ondoko gelako oihuak, ukabil- kadak, negarrak, mehatxuak; tortura hizkuntza bat da hitzik gabea, baina belarriak erauzten dizkigu, mihia, su- durra, begiak, eta egia ikusitakoan, ezin dugu ezer gehiago entzun, ikusi, usaindu, esan, sentitu, barruan gera- tzen zaigu arantza zorrotzak ateratako triku bat bezala, eta orain dela hogeita hamaika urte itxi ez zitzaizkigun zau- rietara kare bizia botatzen du berriro. Zenbat urte behar dira egia bat onar- tzeke?

Zinematik ateratakoan, zapatilak lo- tzen geratu naiz farola apurtu baten azpian. •



«Lasa eta Zabala» filmeko zuzendaria eta aktoreak Donostiako Zinemaldian.

Jagoba MANTEROLA | ARGAKZI PRESS

{ koaderno } Iker Barandiaran

Hurbileko erbestea

Ez dakit erabat argi laburbildu dudan izenburuan azken urteotan bizi dudan sentsazio edo egoera. Erbeste hitzak bi adiera ditu: bata atzerria, eta bestea gogoz kontra sorterritik alde egin behar izatea. Ez nuke biribil esango gogoz kontra jokatu dudanik, baina bai kontrolatu ezin daitezkeen eragileek baldintzatu egin nautela. Eta kontziente naiz erbestea eta hurbiltasuna, biak batera, kontrajarrian daudela pentsa genezakeela. Niretzat, baina, bat etor daitezke.

Gaur egun bizi naizen herria jaio, hazi eta bizipen garrantzitsuenetako asko bizi izan ditudan herritik laupabost kilometrora dago. Badakit oso distantzia laburra dela, oinez ere erraz egin daitekeena eta, gainera, askoren ustetan orain egunero zapaltzen dudan herria aurrekoaren luzapen bat izan daitekeela. Edo, are gehiago, garai batetik hona, gure zonalde honetan herrien izaera baino gehiago eskualde sena indartzeko ahaleginetan dabiltzala. Hala ere, niretzat distantzia egon badago eta ez edonolakoa, urruntasuna ez baita beti halabeharrez kilometrotan zenbatzen; badaude beste gauza asko, urratsez urrats ez bada ere, norberak egunerokoan nabari ditzakeenak.

Esan ohi da zerbait faltan sentitzen dela ez daukazuenean, baina ez utzi edo galdu aurretik. Nik, hala ere, agian zerbaiten susmoa izango nuelako justu jaioterritik irten aurretik atera nuen ditxosozko gidabaimena. Ditxosozkoa diot antza denez urruntze horrek bultzatu baininduen ordura arte burutu ez nuena egitera. Akabo lagun, bikotekide eta auto-stoparen bitartez mugitzeko ohitura zabala. Hortik aurrera, iragarkietako 'askatasun' horren preso, autoaren menpeko bihurtu nintzen denborari dagokionez gazteek egin ohi duten kontrara. Behin probatuz gero, badakizue...

Hala ere, sorterritik urruntzearen prozesua mailakakoa izan zen. Aurreneko urteetan lanari bertan eutsi nionez, loturari ere tinkoago eutsi nion. Gerora, oster, lana ere egungo herrira aldatu behar izateak errutina hori hautsi zuen, zilbor hestea. Horrelakoa da bizitza. Askok, ugari gara, lanagatik, bikotekideagatik edo etxebizitzaren errenta zein salneurriak baldintzatuta bizilekuz –

eta testuinguruz– aldatu behar izaten dugunak. Badira horiek baino arrazoi gordinagoak eta horiei errespetu handiena zor diet, jakina! Baina zerrendatu ez ditudan egoera larri horiek alde batera utzita, eta halako estatistikarik egin denik jakin ez badut ere, erabat ziur nago bikote heterosexualen arteko portzentaje handi batean gizonezkoak joan direla emakumeen herrietara. Bai, neu barne. Begiratu, une batez, zuen ingurura!

Bestalde, mugikortasun horrekin jarraituta, gaur egun jende askok eta askok bere sorterritik kanpo egiten du lan, urrun batzuetan, eta kilometro mordoxka egin behar izaten dute etxetik lanera eta lanetik etxera joateko. Horretan malgua da jende asko, arriskua, denbora eta gastua gainean hartu arren, bizilekuz ez aldatzea hobesten duena. Eta, aldiz, gure gurasoen garaian sorterritik bospasei kilometrotara bietako batek lana bilatuz gero nahikoa zen familia guztia bizilekuz aldatzeko.

Halako estatistikarik egin denik jakin ez badut ere, erabat ziur nago bikote heterosexualen arteko portzentaje handi batean gizonezkoak joan direla emakumeen herrietara

Baina itzul gaitezen berriro hasierako egoerara. Jaioterrira bisitan joaten naizenean sentsazioa dut han egon ez naizenean zerbait galdu dudala, bisitaria, esperimentziadun bisitaria, baina bisitaria naizela. Eta, bestalde, azken urteotan bizileku dudan herrian beti izango naiz kanpotik etorritakoa. Ez dit inork inoiz halakorik esan –edo agian inoiz batenbatek bai–, baina bai 'haiek' eta neuk, biok, dakigu horrela dela.

Hortaz, ni moduan dauden tonaka pertsona orain dela urte batzutatik sonan dagoen 'ezleketan' kokatuta gaude; ez batean eta ez bestean. Are gehiago, erabaki irmo bat hartu artean, edota zirt edo zart egin artean, 'ezleku' horretan jarraituko dugu halabeharrez. Bi leketan egon nahi honekin ez dugu nahikoa kunplitzen ez batekin ez bestearekin, ezta erabat aseta sentitzen ere. •

Hurrengo esaldiari atxiki ohi zaizkion topikoak eta utopiak alde batera utzita,

Konsue Salinasek mundu hobe batean sinesten du. Are gehiago, sinesten du gure esku dagoela hura hobetzea, eta lortzeko gai garela. Nahi izatea da gakoa; alegia, borondatea. «Pobrezia desagerrarazi dezakeen lehen belaunaldia garela diote. Baina nahi al dugu?», egiten du arrapostu. Aldaketa hori lortzeko, edo bide horretan aurrera egiteko, ikasgelak leku aproposak direla iritzi du, eta haurrengan gizartearen zutoin behar lukeen oinarritzko hiru balio hauek sustatu behar lituzketela: elkartasuna, berdintasuna eta bizikidetzatza.

Balio horiek dira, hain zuzen, Txantreako Bernart Etxepare ikastetxean aplikatzen duen Garapenerako Hezkuntzaren iparrorratza. «Erabat konbentzitutak» ekin zion irakasteko modu honi orain zazpi urte eta, egun, autoprestakuntza prozesu luze baten ostean, gainerako irakasleak nahiz gurasoak informatzeko xedez, “Acercando la educación para el desarrollo a la escuela. Una mirada internacional, una mirada local” liburua idatzi du.

Garapenerako Hezkuntza aplikatzeko argudioez gain, legez ere mintzo da bertan. Araudiei dagokienez, «sorpresa asko» aurkitu ditu dokumentazio lanetan. Esaterako, Europako Kontseiluak hezkuntza horren aldeko ebazpen bat onartu zuen 2001 urtean.

Liburua oso harrera ona izaten ari dela dio, pozik, eta aste bakarrean ereduari buruzko informazioa eskaintzen duen blogak (garapenerakohezkuntza.info) 700 bisita baino gehiago jaso ditu. Beharra dagoela erakusten du horrek, bere iritziz.

Garapenerako Hezkuntza. Bi hitzok, zein bere aldetik hartuta, ezagunak zaizkigu, baina zer esan nahi dute elkarren ondoan jarrita?

Gureaz bestelako kulturak eta

«Izugarrizko konfiantza dut irakaslegoan. Lan egiteko tresnak eskuratzen ditugunean emozionatu egiten gara geure ogibidearekin»

«Irakasleok oso adi egon behar dugu haur guztien integrazioa bermatzeko, partaide sentiarazteko. Taldean egoteak ez du esan nahi taldekide sentitzen direnik»

errealitateak egon badaudela ezagutaraztea. Zertarako? Kontzientzia kritikoa izateko, baina ez horretara mugatzeko, baizik eta gizarte-eragile bilakatu, eta gizartearen eraldatu ahal izateko.

Liburuan eredu txertatzeko argudioak eskaintzen dituzu. Zeintzuk dira arrazoi horiek?

Lehena, hezkuntzako helburu gisa jotzen dutela bai LOEk, bai Lomce-k. Baten eta bestearen artikuluetan hezkuntzako helburu gisa zehaztuta daude elkartasuna eta herrien arteko

lankidetzatza. Halaber, 2001 urtean, Europako Kontseiluak ebazpen bat eman zuen, Europako herrialdeetako gobernuek hezkuntza sisteman Garapenerako Hezkuntza sar zezaten. Zer edo zer egin dute, baina Administrazioak oraindik ez digu irakasleoi helarazi betebeharrak edo ezinbesteko atal gisa.

Inkomunikazio hori da, neurri batean, liburua argitaratzeko arrazoiak?

Irakasle askok egiten du lan ikuspuntu horren arabera, egia

da. Kontua da borondatezko edota eskolaz kanpoko jarduerak gisa hartzen dela, are Gobernuak Kanpoko Erakundearen ardura gisa ere. Alabaina, elkartasuna eta balio demokratikoak praktika bidez ikasten dira, baina ez baditugu irakasten ez dira garrantziak.

Gaur egun ikasgeletan jatorri anitzeko ikasleak daude. Ohartzen al dira haurrak beste jatorri bateko pertsonak daudenaz?

Hori da elkarbizitza; aukera



«Irakaslearen rola aldatu egin da; ez dugu denetik jakin behar. Gelan egoerak sortzen diren neurrian ikasten dut nik»

ematen digu beste kultura batzuk ezagutzeko, bizitza ulertzeko bestelako moduez jabetzeko. Zoritxarrez, errealitate hori zenbait ikastetxeetara dago mugatuta, ez baita guztietan ematen. Horrelakoetan, gaitasuna eduki behar dugu ume horri harrera ona egiteko, partaide sentiarazteko. Izan ere, batzuetan haurrek sufritu egiten dute beren burua arrotz ikusten dutelako. Irakasleak oso adi egon behar dugu integrazioa bermatzeko. Jatorri guztiak aitortu behar ditugu, haien sustraiak landu,

haien herrialdeak nolakoak diren azaldu... dena zentzu positiboan. Sustraiak onartu eta lantzen badira, haurrak gai dira ondo sentitzeko talde batean. Taldean egoteak ez du esan nahi kide sentitzen direnik. Beraz, hori da lehentasuna.

Errealitatearen aurrean ispilu bat jarriko bagenu, zer erakutsiko liguke?

Marko teorikoa eta legala oso aurreratuak daudela, baina ez direla gugana iritsi. Etengabeko prestakuntza horretan, ez diogu ildo horri heldu, eta, berriro ere, irakasleen konpromisoan dago gakoa.

Begira, 2009 urtean espainiar Estatuko Hezkuntza Ministerioak bere gain hartu zuen gai hau, Garapenerako Lankidetzaren Agentziak hartu beharrean, ordura arte bezala, eta lehen aipaturako Europako ebazpenaren zenbait estrategia bere egin zituen; adibidez, hizpide dugun moduan diharduten ikastetxeak nahiz irakasleak saritzea. Urtero, Estatu mailan, hamabost zentzoren lana aitortzen da.

Partaide izan zinen aurreneko deialdi hartan.

Bai, eta jarraitu dugu sarean lan egiten. Denon sentipena da bakar-bakarrik gaudela. Elkartzean konturatu gara profesional asko ildo horretan ari garela, baina babestuko gaituzten argudioak falta direla. Garapenerako Hezkuntza terminoa existitzen zenik ere ez genekien... Pentsa, lantzen genuena, zer zen jakin gabe lantzen genuen. Finean, bizitza ulertzeko moduari izena jartzea izan da.

Nola txertatzen da eredia ikasgelan? Aipatuko zenuke zure zentroan egiten duzuen ariketaren bat?

Hainbat hizkuntzatan hasten dugu eguna: egun on, buenos días, good morning... Aurten, portugesez hitz egin eta aita Angolakoa duen haur bat dut, beraz, bom dia erantsiko dugu. Bulgariako bi neskato daudenez, euren hizkuntzan ere hasiko dugu eguna.

Gainerakoan, modu naturale-

an sortzen dira askotariko eztabaidak.

Oroitzen naiz ikasle batek panpin bat ekarri zuela, eta hanka hautsi zitzaiola. Horretaz ari ginela, jartzen diren bonba lapetz mintzatu ginen, gerretaz... errealitatea gerturatzen diegu. Beste batean, Guatemalara egin dako bidai batetik bueltan, argazki bat erakutsi nien. Bertan, bi neskato ageri ziren, 7 eta 8 urtekoak, azokan pultserak saltzen. Galderak egin zituzten bata bestearen atzetik. Zergatik aritzen ziren horretan, zergatik ez zeuden eskolan eurak bezala... eta abiapuntu bikaina izan zen azaltzeko neska-mutil askori ez zaiela aukera hori ematen. Haserretu egiten dira munduarekin eta kontzientzia kritikoa hartzen hasten dira, hori onartezina dela defendatuz.

Batzuetan, badirudi arduraren zati handi bat irakaslegoari egozten zaiola. Gehiegi espero al da zuengandik?

Eredu honekin lan egitea, niretzat, ez da ardura, askapena baizik. Gelan asko disfrutatzen dugu eta oso giro polita sortzen da. Onartu behar dugu gizartea aldatu egin dela eta, gaur egun, gehiegikeria dela nagusi; estimulu gehiegi heltzen zaizkigu. Hezkuntzan gauza bera gertatzen da, eta ezinezkoa da arlo guztietan prestatzea. XXI. mendean irakaslearen rola aldatu egin da, onar dezagun, ez da ezer gertatzen horregatik. Ez dugu denetik jakin behar, ez da nire asmoa, ez naiz jakintsu bat; ikasi egiten dut nire gelan egoerak sortzen diren neurrian.

Nola ikusten duzu irakaslegoa?

Izugarri sinesten dut irakaslegoan, erabateko konfiantza dut. Estrategiak errazten dizkigutenean emozionatu egiten gara gure ogibidearekin. Horregatik, motibazio hori lortzean, bidea oso erraza da.

Bata bestearen atzetik datozten legeen fasea gainditu behar dugu, izan ere, irakaslea bere gelako jaun eta jabe da. Bete ditza gun curriculumaren hutsuneak, baina ilusioarekin.

KONSUE SALINAS

BALOREEkin HEZTEN

Elkartasuna, berdintasuna eta lankidetzak dira irakasle honen metodoaren oinarria. Garapenerako Hezkuntza deitzen zaio eta liburu batean bildu ditu gako guztiak.

Oihane LARRETxea DE LA GRANJA

Hegoaldea jasangarria izan dadin, iparraldea aldatu behar dela defendatzen duzu. Zer esan nahi duzu?

Gure konsumo motak bestee-
gan eragin zuzena duena. Gai
hori lantzean, hegoaldea pobre-
ziarekin eta azpigarapenarekin
lotu ohi dugu, baina ez gara
konturatzen erantzukizun han-
dia dugunaz.

Barneratu behar dugu gara-
pen-sistema agortu dela. Helbu-
ruea, ordean, ez da hegoaldea ipa-
rralde bihurtzea, gu egokitzea,
gu aldatzea baizik.

Gaur egun guztia deusezta-
tzen da. Adibidez, Ghanan, etxe-
tresna elektrikoaren zaborte-
giak ditugu. Gai bagara zaborra bi-
daltzeko, gai izan behar gara
bestelako gaiez betetako edu-
kiontzia bidaltzeko.

Gure artean zein erakundeetan teoria garatuta dagoen bitartean, praktikan urratsak falta dira. Zergatik? Utzikeria, akaso?

Uste dut Administrazioan ber-
tan dauden pertsonen ere ez du-
tela informazio hori jaso, bitxia
bada ere. Beraz, “barruan” dago-
en pertsona gorabehera, gehia-
go edo gutxiago egiten da. Hez-
kuntzan jende konprometitua
egon denean urratsak eman di-
ra, profila aldatzean, eten egin
da bide hori. Ikastetxeetan gau-
za bera gertatzen da. Zergatik?
Hipokresian bizi garelako; dis-
kurtsua polita izanagatik, inte-
res ekonomikoak garrantzi han-
dia du.

Liburua irakasleengan eta fa-
miliengan pentsatuz idatzi dut.
Lehen liburu honetan, argudio
guztiak eskaini ditut eredu-
a aplikatzeko. Horren aldeko lege-
ez mintzo naiz, baina bigarren
liburuan, halakorik badator, as-
koz ere kritikoagoa izango naiz.

Kritikoagoa?

Bai, hiritartasun kontzientzia
edukitzen uzten digute, baldin
eta ez baditugu marra gorri ba-
tzuk gaitzitzen. Bestela, ulerte-
zina da Europako Kontseiluak
ebazpena onartu zuenetik ha-
mahiru urte igarota, oraindik
horrela egotea.



IBILBIDEA

Ia bi hamarkada dira haur
hezkuntzan irakasle
lanetan dabilela. Lana izan
arren, Konsue Salinasek ez
du betebeharrak bezala
hartzen eta ikasgelan aske
sentitzen dela dio, hain
maite dituen umeekin.
Hauek hezteko,
Garapenerako
Hezkuntzaren eredu-
a jarraitzen du. Gai honetan
autoprestakuntza-prozesua
hasi zuen orain zazpi urte.
Lan horren fruituetako bat
da kaleratu berri den
liburua.

**BAKOITZAREN SEME-ALABAK DIRA
GARRANTZITSUENAK... BAITA BESTEENAK ERE**

Elkartasuna da hezkuntza-eredu honen
oinarrietako bat, balioei dagokienez, «baina ez
modu karitatetsuan», dio Salinasek. Alegia,
elkartasuna da beste pertsona bat zein egoeran
dagoen ulertzeko gaitasuna eta berdintasuna.
Horiek dira zutoinak. Justizia sozialaren
defentsa ere ezinbestekoa da, aukeren
berdintasun bezala ulertuta.

Elkarrizketaren une batean, honakoa dio: «Ni
ama naiz, eta ulertzen dut gaur egungo
gurasoen seme-alaben gainean egon behar
hori, guretzat garrantzitsuenak direlako, baina
ikuspuntua hori gaitzitu egin behar dugu. Oso
inportanteak dira, baina besteak ere bai».

Garapenerako Hezkuntzaz mintzatzea
pobrezia eta bazterketa soziala gaitzitzeaz hitz
egitea den une beretik, denon inplikazioa
beharrezkoa dela iritzi du; alegia, klabe
indibidualista gaitzitu eta kolektiboki
pentsatzea. «Beste haurrengan pentsatzeak ez
du esan nahi zureak gutxiago maite
dituzunik», dio irakasle honek.

Horretarako, oso garrantzitsua da beste

ikuspuntua bat edukitzea, «adibidez, hegoaldera,
Afrikara, errukirik gabe begiratzea».
Komunikabideek, oraindik orain, ikuspegi hori
helarazten dutela tamaltzen da.

Ondo daki zertaz ari den. Arrazoi pertsonalak
tarteko, lotura estua du Afrikarekin Salinasek.
Ezinbestean ezagutu behar den kontinentea,
bere iritzi. «Hemen galdu diren balioetako
batzuei eutsi diete han. Seme-alaben auziarekin
jarraituz, hemen indibidualistak garen
bitartean, han erabat bestelakoak dira».
Txikitan maitasunik jaso ez duten haurrei
maitasuna ematea gizarte baten
etorkizunarentzat zein garrantzitsua den
azpimarratzen du. «Haurrek, txikitan ondo ez
badaude, behar bezala zainduta, horren
ondorioak jasango dituzte. Ikuspuntu bereko
batetik diot; izan ere, zailtasunak eragingo ditu
horrek gizartearen».

Bitzita eta denbora ulertzeko modua ere
ezberdina dela dio. «Afrikarrek diote dute guk
ordulariak ditugula, eta haiek denbora.
Badakizu zer? –dio–. Ez zaie arrazoi falta».



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

IKUSMIRA

ETA NIK BADAKit ZEURE BEGIEN HONDOAN NAGOELA

«Oroitzen zaitudanean, ama, sukaldean egoten zara. Mahaia bostentzat iminita, aulkian eseri eta leihotik begira, kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe, eta nik badaKit zeure begien hondoan nagoela».

Feli Artanok eta Jexuxa Arostegik denbora gehiegi eman dute leihotik begira, Joxi Zabala Artano eta Joxean Lasa Arostegi noiz azalduko. Semeak desagertu zirenetik hamaika urte, bost hilabete eta lau egun pasatu zirenean jakin zuten alferrik begiratuko zutela leihotik, ez zirela berriz agertuko etxeko sukalde-
ra. Eta hogeita hamaika urte pasatu direnean, leihotik begira

egotetik pantailari begiratzera pasatu dira. Eta hor agertu zaizkie Joxi eta Joxean, eta hor agertu zaizkie inongo amak seme-tzat nahi ez lituzkeen piztiak. Zinema aretoko aulkian uzurtu eta jertsearekin aurpegia tapatu dugu ikusteko gai izan ez garenean. Feli eta Jexuxak alferrik tapatuko dituzte begiak, begien hondoan dagoena ezin baita tapatu.

Oihala altxatu da eta hor agertu dira Feli, Jexuxa, eta beren etxekoak. Eta haiei begira berriro akordatu gara ez dela filma, errealitatea dela. Duintasunez sufritutako errealitatea.

amagoia.mujika@gaur8.info



Dani
Fano

iRRITZIA:



EZER HOBERIK EZ BIHOTZA ALTXATZEKO KOHERENTZIA POLITIKOA BAINO.



ELIKADURA HIZTEGIAK

Sukaldaritzako 4.134 hitz eta esanahi jaso eta sarean jarri ditu Edorta Agirrek

📁 **HIZKUNTZA** / oihana.llorente@gaur8.info

Bart alitak afaldu nituen» eta hala-koak entzun orduko sutu egiten da Edorta Agirre (Donostia, 1949).

Itzultzailea da ofizioz eta gastronomiako kazetari afizioz. Bi pasioen batuketak «Elikadura Hiztegia» eta «Elikadura Hiztegi Entziklopedikoa» lanak eman du emaitza gisa.

Egunean hirutan eta bizitza osoan zehar errepikatzen dugun ekintza da jatea. Agirreren aburuz, alabaina, sukaldaritzari lotutako lexikoan euskarak gabezia nabarmena du. «Zulo tamalgarri eta lotsagarri hori betetzen» lau urte eman ditu eta sarean eskegi ditu elikadurari lotutako terminoak eta esamoldeak barnebiltzen dituzten bi lanak.

A bitaminatik hasi eta zia-zerbara arte 4.134 termino aurki daitezke «Elikadura Hiztegia» deiturikoan. Aspaldian jatetxe propioa edukita, sukaldaritzaren inguruan mila artikulutik gora eta bost liburu idatzi ostean, tiradera batean gordeta zituen hitz gehienak Agirrek. Haiek antolatzearen eta txukuntzearen ondorio dira lanak.

ERABILPEN ANITZ

125 orrialde ditu «Elikadura Hiztegia» aleak eta sei zutabetan banatu du termino bakoitza. Euskarazko hitzak ematen dio sarrera eta, ondoan, termino horrek izan ditzakeen sinonimoak ageri dira. Hirugarren zutabearen termino zientifikoa dago, hitzak izaki bizidun bati erreferentzia egiten diotenean. Hurrenkeran hurrena gaztelaniazko terminoa da; frantsesezkoa bosgarrenean dago; eta azkenekoan, ingelesezkoa.

«Elikadura Hiztegi entziklopedikoa»-k erabilpen ugari dituela sinetsita dago Agirre, baina, bereziki, teknologia berriarekin lotura duten belau-naldi berriak ikusten ditu erabiltzaile gisa. «Lehen sektorean, baserritar, arrantzale ala artzain gazteak izan daitezke. Bigarren sektorean, txerriki saltzaileak, arrain

Lau urteko sukalde lanaren ostean, «Elikadura Hiztegia» eta «Elikadura Hiztegi Entziklopedikoa» osatu ditu Edorta Agirrek. Erreminta dinamiko eta eskuragarriak izan daitezen sarean eskegi ditu. Euskarak sukaldaritzari lotutako lexikoan duen hutsunea bete nahi izan du lan hauekin.



Edorta Agirre bere etxean atonduta duen lan eremuan. Andoni CANELLADA | A.PRESS

saltzaile gazteak... eta hirugarren sektorean, kontsumitzaile guztiek erabili dezakegu. Aldez edo moldez jende guztiak erabili dezakegu», dio, seguru.

Nutrizioaren inguruan munduan hedatuta dauden termino eta moduak bildu dituen arren; esaterako, *à la boulangere* edota *à la crezy*, euskal herritarrek sukaldaritzaren gainean duten ikuskerari ere tartea egin dio, eta sorgin-afaria edota zikiro-jana moduko ohiturak zer diren eta nondik datozen jaso du egileak.

LANAK

Interneteko

helbide hauetan daude

eskuragarri:

<http://es.calameo.com/read/003784223b8d745e146cc>

<http://es.calameo.com/read/003784223c56df4939476>

SAREAN ETA ESKURA

Jakintza hauek internauten esku daude bakarrik, baina ez diru premiagatik soilik. Lanaren bolumen handiak, 850 orrialde ingurukoa hiztegi entziklopedikoren kasuan, ez du, egilearen ustez, erreminta eroso egiten; «gainera, zenbat zuhaitz moztu beharko lirateke horretarako?», galdetu du.

Hala eta guztiz ere, hiztegia «bizirik» mantentzeko nahiak bultzatu du bereziki hiztegiak sarean eskegitzera. 4.000 terminotik gora jaso dituen arren, «beste hainbeste» falta direla uste du eta soilik sareak duen bat-batekotasunak eskaintzen dio sortzen doazen hitz berriak gehitzeko aukera.

Erabakiaren atzean hiztegia berritzen joateko konpromiso sendoa dagoen arren, Agirrek argi utzi nahi izan du konpromisoa «berea eta bakarrik berea» dela. Izan ere, kexu da eskuratu duen finantzabide ezdeusarekin. Lau urtez hamai-ka erakunderen atea jo eta «limosna eskean» aritu ondoren, elikadura eta euskara batzen dituen proiektu honentzat xentimorik ere ez egotea «lotsagarria» iruditu zaio. Diru premia «aitzakia» delakoan dago eta gogor kritikatu du erakunde publikoen diru-kudeaketa.

Lan hau plazaratzea Agirreren betebeharrak «politiko eta kulturala» izan omen da, eta gure herrian «euskaldun asko, bai, baina euskaltzale gutxi» daudela kexu da. Euskara eremu orotan erabil dadin dabil ekinean.

infraganti HASIER LARRETXE

Hitzezko aizkorakadak dira Hasier Larretxearen testuak. Aurkeztu ere hala egin ditu, aitaren egur kolpeek lagunduta. Madrilen bizi den Arraiozko idazlearentzat “Larremotzetik” liburuarekin gertatutako gauzarik ederrena izan da aita-semeak hurbiltzea. Amatxi Leonitari eta goxotasun baten transmisioari eskainitako obrak familia osoari egin dio on.

Madriletik mintzatu da idazlea GAUR8rekin narrazio gintzan egindako lehen lanaz eta, bide batez, bere bizitzaz eta inguruaz. Madrilen buruko eritasunak dituzten pertsonekin egiten ari den lan pilotua ere azaldu du. Moldeak aldatzen ditu horrek, pertsona zentro itxi batera hurbildu beharrean, profesionala doalako bere etxera, berarekin eta familiarekin zuzenean lan egitera. Kontent daude ospitalizazioak murriztea lortu dutelako ehuneko «izugarrian», eta jendea egonkortu eta hobetzen dela ikusita.

Superazioa, «bizitzeko armarik onena», “Larremotzetik” liburuan ere agertzen da. Garbiketa eta sendabide deritzo Hasier Larretxeak idazketari, baita prozesuen erakusgarri bezala ere. Bere ustez, pertsona baten ahalegina ez da azaltzen esfortzuari edo izerdiari lotutako indarra erakutsiz; alegia, batzuetan gizonek duten ereduaren bidez, baizik eta beste era batez. Hor dira pentsamendua, gogoeta, eraldaketa prozesuen aldeko zirrikitua.

Testu batzuk gertaerei buruzkoak dira eta besteak oroimenaren bidetik doaz, eta gehiago dute poesiatic, haren altzora lerrotzen diren metaforen bidez. Testu laburren bilduma da, puzzle gisakoa. Gero, irakurleak osatu behar du sekuentzia.

Amatxi Leonita izan da liburuaren iturburua. Zortzi urte daramatza idazle baztandarrak Madrilen eta berarekin biltzen zenean beti saiatzen zen grabaketak egiten. Bere gaztaroko kontuak kontatzen zizkion: fes-

tak, ohiturak, elizarako joan-etorriak... Seme-alabei kontatu gabeko istorioak ere agertzen ziren tarteka. «Bazuen zama bat, oinordekotarako eraman zutela. Bere familiak deliberatu zuen bi urterekin Amaiurretik Arraiozera eramatea oinordekorik ez zuten senide batzuekin».


Sinbologia handia du liburu honek amatxik ez zuelako bukatuta ikusi. Leonita martxoan zendu zen eta liburua uda hasieran atera zen. Testuan dira bere baserri garaiko bizipenak; herri- ra bizitzera joan zirenekoa, baserriaren falta sumatzen zuela eta senarra herrira jauzi egin zutenean hil zitzaiola, eta heriotzaren inguruan, herrietan gertaera bizitzeko modua zer-nola-koa den.

BASERRITAR UMILEI ESKAINIA

«Niretzat amatxi esentzien gordeleku eta bizimolde baten ispiluz zen, baserritarraren solasak eta ikuskera ziren bereak. Liburu hau, izenburutik tiraka, baserritar xume edota jende umil horiei eskaintzen diet. Hizkuntz transmisioaz gain, ohitura, mundu ikuskera, goxotasun baten transmisioa da amatxirena, gehienbat, goxotasunarena», adierazi du idazleak.

Amatxiren hitzetatik abiatu zen liburua, eta aipatzen zizkion garai bateko kontuak hamarkadak beranduago berari gertatutakoekin tartekatzen hasi zen Madrilen.

Euskal nekazari familia baten belaunaldi desberdinak islatzen saiatu da. Hor dago aita-semeen arteko harremana, nolatan aita eta osaba herri kirolariak diren eta herri kirolarekiko maitasun eta bizipen horiek eskaini zizkieten ondorengoei. Ez zuten lortu, ordea, semeek beraien




ibilbidea segitzea. «Nire haurtzaroa eta nerabezaroa oso presente daude. Hein batean, bi plano ageri dira: paisaiaren eta familiaren edertasun hori, eta opresioak eta barne eta kanpo kateek pertsona bat nola murriztu dezaketen. Badago talka bat inguruaren eta hor hazten doan ume ttipi horren artean».

Hortik Madriler joateko gertaera edo deliberamendua, eta gero herrira itzultzea liburu batekin, pertsona eta idazle gisa prozesu bat burututa.

«Bakoitzak sentitzen duena esatea eta egitea da hauturik hoberena, duinena», dio lanean. «Kolpeka ibili nintzen zenbait urtez. Ibili nintzen gauzak egiten, baina ez nintzen zoriontsua. Gaur egun mutil-laguna den pertsona ezagutu nuelako etorri nintzen Madriler eta hor gaude elkarrekin bizitzen duela zortzi urtetik, baina bazen behar nuen zerbait».

Eta ez zuen inoiz pentsatu proiektu izan zitekeenik Madril; bat-batean etorri zitzaion eta egin duen «gauzarik hoberena» izan da. Gogorra izan zen hasiera, zerotik hasi beharra. «Amari



Hasier Larretxeak
Donostian aurkeztu zuen
«Larremotzetik» liburua.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

lotzen ninduen zilborrestea moztea bezala izan zen, eta hori osasungarria da. Zoriontsu naiz batzuetan lurra edo lohia ukitzearekin, mina ezagutzearekin, ezinbestean altxatzen zarelako eta horrek indartsu ere egiten zaituelako eta, gainera, garrantzitsuena dena, beldurrik gabe, deus ere erakusteko beharrik gabe, zu zaren bezala».

Maitasuna erakusteko era desberdinak ere iradokitzen ditu. Aitaren pertsonaiak, adibidez, gizon gogor bat islatzen du. «Ez dakit bere bizar luzeak ziztatzten ninduelako utzi ote nion musu emateari, ala bera izan zen erabaki horren erantzulea». Liburu honekin gertatu den «gauzarik ederrena» da aita eta bere arteko maitasuna modu ageriagoan azaltzea.

«Esan bezala, nik aitzaki gisa bera aurkezpenetara egurrak moztera etortzea pentsatu nuen eta halaxe egin du, baina ez da horretan gelditu, parte-hartzaile handiena izan da, liburuaren eta gure erlazioaren inguruan hainbat aitorpen eginez, oso baliotsuak eta biziki ederrak. Jendea biziki emozionatua

gelditu da, ikusirik zein harro eta kontent dagoen honekin guztiarekin, nahiz eta liburuan, berak badakien gisan, haurtzaroko zenbait kontu agertzen diren». Idazleak esplikatu duenez, distantziak zenbait gertaera ulertzeko lagungarria da, baita maitasuna ez dela batzuetan norberak kodifikatu dezakeen gisakoa ikasteko ere, batzuetan sotilagoa baita eta gehiago landa eremuetan. Maitasuna ez da batzuetan besarkada edo musu batekin ematen, beste keinu batzuekin baizik.

Bestalde, jendeak beste egin-kizun batean ikusi du aita. Plazan, entrenatzaile gisa aritu beharrean, literatur espazioetan gogoetan ibili da eta batzuetan erakutsi ez duen alderdi bat agertu du, goxoagoa, leunagoa eta patxadatsuagoa ere bai... Azkenean, agian, aita-semeen izaerak ez dira hain desberdinak.

Homosexualitateak lekua du liburuan. Hala deskribatzen du amak hartutako disgustua: «Hamaseirekin, amak negar batean ez nuela logelan neska biluzien posterrik, ez nuela beraien inguruko solasik-eta, zer zen hura

galdetzen zidan, larrimina baretzeko heldulekurik gabe». Autobusa hartu eta Iruñera joaten zen gaztetatik EHGAmen bulegora eta gurasoentzako triptikoein itzultzen zen.

Aitak egurrak mozten ari zen bitartean jaso zuen berria. Orain, Baztan-Bidasoaldeko herri kirol klubeko entrenatzailea da eta bera da aipamen homofobikoren bat entzuten duenean homosexualitatearen edo sexu askapenaren aldeko erantzun bat ematen duena. «Hori eskertzekoa baino gehiago harro egoteko modukoa da seme naizen aldetik, ditudan gurasoak ditudalako».

«Maitasuna ez da batzuetan norberak kodifikatu dezakeen gisan agertzen, sotilagoa baita, eta gehiago landa eremuetan. Batzuetan ez da besarkada edo musu batekin ematen»

Madrilen buruko gaixotasunak dituzten lagunekin egiten ari diren lan pilotuan, pertsona zentro itxi batera hurbildu beharrean profesionala gerturatzen da bere etxera

Larretxea abizena pisua zen Hasierrentzat eta ttikitatik izan du literatura gordeleku, aitzakia ere bai, aitari laguntzera ez joateko. Eta liburuan presente dago seme bezala espero zena eskaini izan ez duen heinean justifikazio gisako bat ere. Gorazarre bat bizimodu horri eta bizitza ikus-teko era horri. Ildo horretan badu beraien ikuskera, jakinduria eta bizitzan egoteko modu hori transmititzeko beharra. «Ez dut egurrak mozten bukatu, baina bai, nolabait, egurrak moztearen kronista gisa».

Izenburuak abizenarekin jo-koa egiten du eta larremotzetik larre zabalerako jauzia ere irudikatzen du. Horretaz gain, larremotzeko pertsona baliabide anitz izan ez dituen da, inguru zailean sortua, maizterra.

BURU GAIXOTASUNA DUTENEKIN

Larretxeak badu beste liburu bat egiteko bigarren iturri bat ere; gizarte hezitzaile gisa egiten ari den lana. Aurreko astean Euskal Herrian izan zenean jendea asko interesatu zitzaion eta, noizbait, itzulera egiten duenean, pentsatua du halako programa bat hemen eratzea. Gainera, garrantzitsua litzateke landa eremurako, buru gaixotasunak pairatzen dituzten pertsonak sarri baserrian isolaturik bizi direlako.

Ikusten duenez, lan handia dago egiteko familiekin, «askotan, tristea bada ere, familiakide batzuek bilakatzen baitute gaixoa oraindik eta gaixoago». Laguntza soziokomunitario talde bateko kide da baztandarra. Madrillgo auzune bakoitzak talde bat du eta psikiatrak egiten du eurengana bideratzeko balorazioa. Ez dira identifikatzen profesional gisa eta pixkanaka joaten dira pertsona ezagutzen eta bere beharrak ikusten. Horien arabera, arlo ugari lantzen dituzte: lana, prestakuntza, etxeko lanak, ekonomia, integrazio soziokomunitarioa... Lan «sakona eta eraginkorra» dela nabarmendu du Larretxeak, testuinguruan egiten delako gabeziak ikusiz eta tresnak emanez. •

Maidar Iantzi Goienetxe

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Kanada

Kanadako Parlamentuari eraso egin eta bi lagun hil ziren asteazkenean, herrialde osoan ikara zabalduz. Identifikatu gabeko lagun bat soldadu bati tiro eginda sartu zen Kanadako Parlamentuan. Gainera barruan poliziak erasotzailea larri zauritu du eta ondoren hil egin da. Baita monumentu bat zaintzen ari zen soldadua ere. Stephen Harper Kanadako lehen ministroa eraikinaren barruan zegoen, baina onik atera zuen bertatik segurtasun talde berezi batek.

> iPad Air 2

Apple-k oraintxe aurkeztu du bere iPad Air 2. Pisu gutxiago duen tableta honek, bereizmena eta potentzia handiagoak ditu. 6,1 milimetroko lodiera du, aurreko modeloa baino %18 finagoa da, beraz. Pantaila geruza batekin dago estalita, eguzki izpien %56 murriztuz. Abiadura eta potentzia grafikoari dagokienez, aurrekoa baino 180 aldiz azkarragoa omen da. Apple-k tableten salmenten etengabeko jaitsiera eten nahi du modelo berri hau merkaturatuta.

> Bizikletak

Bizikletak mendian debekatzekotan dira, ehiza uxatzen dutenaren aitzakian. Maria Dolores de Cospedalek Gaztela Mantxan onartu gura duen ehiza lege berriak trabak ipini nahi dizkie txirrindulariei, animaliak uxatu edota perretxikoak kaltetzen dituztela argudiatuta. Haserre dira oso bertako txirrindulariak eta negar egin edo bizikleta hartuta Gaztelatik ihes egitekotan dira. Inguruko herrialdeak aurrera doazen heinean, eurena atzera doala eta kexu dira.

> Bideo-jokoak

Madrid Games Week bideojoko feriak 50.000 lagunetik gora hartu ditu egunotan. Europako bideo-joko plaza nagusienetako da Madrilekoa eta bertaratu direnek hainbat jokoren azken bertsioak ikusi eta probatu ahal izan dituzte. “Assassin’s Creed” edo “Call of Duty” gerra bideo-jokoak dira ikusmin gehien eragin dutenak. Lehenak, ordenagailuetan erabiltzeko sortu bazen ere, aspaldi egin zuen salto kontsoletara. Bigarrena, aldiz, frantses Iraultzan dago kokatuta.

> Etxe Zuria

Beste ezusteko bat Etxe Zurian. Berriz ere lortu dute Ameriketako Estatu Batuetako presidentearen segurtasun sare zurruna gainditzea. Zakerrek harrapatu zuten hesiaren gainetik pasatu zen ezezaguna. Azken urtean behin baino gehiagotan errepikatu den egoera da. Irailaren 19an beste gizonezko batek Etxe Zuriko hesia gainditzea lortu zuen, baina orduko hark laban bat zeraman aldean. Eta egun batzuk beranduago, Obama zihoan igogailuan sartu zen beste ezezagun bat.



KUTXATEKA.COM

MAGALA, MUNDUKO TOKI SEGURUENA

Pozak eta minak pausatzeko tokia magala. Haurrentzat, munduko toki seguruena. Badaki libre korrika egiten, erortzen, mina hartzen eta magalera bueltatzen patxada berreskuratzeke. Handitu ahal, esaten diote magalik gabeko mundua izango dela aurrerantzean berea. Handiek ez dute negarrik egiten, eta ez dute magalik behar. Tamaina guztietako magalak dauzkan mundua beharko luke gureak. Lotsarik gabe aitortu beharko genuke denok dugula noizbait magal baten beharra. **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Maria Gonzalez Gorosarri
kazetaria eta ikertzailea



Albiste agentzien iragazkiaren menpe

Munduan eragin handiena duten albiste-agentziek “lau handiak” izena hartu zuten 1990eko hamarkadan: **United Press International (AEB), Associated Press (AEB), Reuters (Erresuma Batua) eta AFP (Frantzia) dira.** Hego Amerikan eta Euskal Herrian duen eraginagatik, EFE agentzia (Espainia) ere kontuan hartzekoa da. Irailaren 11ko atentatuen berri emateko, AEBn bertsioa zabaldu ordez, mundu islamiarrari ahotsa eman zion hedabide bat sortu zen: Al-Jazeera, Qatarko petrodolarrek kontrolatua. Sei horiek zabalzen dute une honetan mundu osoko informazioa.

Horregatik, nazioarteko albisteetan, mundua Europak eta AEBk osatzen dutela dirudi. Herrialde horietako hiritarrei gertatutakoa garrantzitsuagoa da. Adibidez, Estatu Islamiarrak bi kazetari estatubatuar hiltzea lehen albiste izan zen, ez ordea orain bi aste hildako Muhanad Akide kazetari kurdia.

Gaur nazioartean albiste izango dena Europak eta AEBk erabakitzen dute. Batetik, interes politikoak dituzten herrialdeetako albisteak sortzen dituzte. Esaterako, 1998an, Lewinsky auziagatik, *Impeachment* (dimisioa eskatzeko) prozesua hastekoa zen egunean, Bill Clinton presidenteak Iraki eraso egin zion, hedabideetako lehen albiste bere sexu-aferra izan ez zedin.

Bestetik, alarma eragiten duten albisteak ematen dituzte hedabideek, eta berri horiek albistegietatik desagertu egin ohi dira beste albiste ikusgarriago batek ordezkatuta. Horrela, hegaztien gripea mutatu ote zen jakin gabe geratu ginen eta okindegian Fukushimako erreaktorea ureztatzeko premiaz eztabaidatu genuen. Ebola deskubritu berri dugu, Europa eta AEBra heltzearekin batera.

Espainia Troikaren erreska-tearen zain egon zen sasoiari, arrisku-sariaren minutuz minutuko bilakaeraz informatzen zuten hedabideek. Orain horren berririk gabe, ekonomiak hobera egin duela uste dugu. Hedabideetan agertzen ez den nazioarteko herrialdean arazo handiegirik ez dagoela sinestera ohitu gara. Venezuelari buruzko albisteak

ia egunero jasotzen ditugun bitartean, Guatemalaren berririk ez dugu, egunero 17 lagun hiltzen badituzte ere (erdiak baino gehiago, emakumeak, indarkeria matxista helburu politikoekin erabilia). Baina Guatemalan bake soziala dagoela uste izateko joera dago, hedabideetan agertzen ez delako.

Nazioartean geratzen ari dena ulertzeko, azken minutuko gertaera baino, horren analisiaren premia dugu. Nigeriako Boko Haram taldeak apirilean bahitutako 200 emakumeak askatuko dituela zabaldu dute asteon. Bahiketaren berri eman zutenean, baina, Nigeriako gobernuaren bertsioa zabaldu zuten hedabideek; hau da, “terroristekin negoziatuko ez” zukeela. Mendebaldearen presiopean Boko Haram-ekin negoziatu du, baina Nigeriako gobernu ustela ez da albiste, Europarekin eta AEBkin kolaboratzen duelako: Nigeriak petrolioia izan arren, herritar gehienak gosez hiltzen dira, buruzagi politikoek herriaren aberastasuna lapurtzen dutelako.

Boko Haram-ek aurretik ere emakumeak bahitu izan ditu. Ekintza batean 300 emakume bahitzearekin batera, Obamaren

emazteak askatzeko eskatu zuenean, albiste bihurtu zen. Bahiketatik alde egitea lortu zuten 53 neskatilak, ordea, ez ziren albiste izan, bizitza arriskuan ipini bazuten ere. Handik hilabetera, beste lauk alde egin zuten, baina gurean ez zen berriro albiste izan, hedabideek Gobernuaren bertsioa erreproduzitu zutelako.

Era berean, egun jakin batzuetan Hong Kongen ikasleak altxatu direla jakin dugu. Udaberri arabiarrek horrela hasi zirela kontuan izanda, nazioartean plazak okupatzearekin batera borroka politikorako bide berriak zabaldu dira. Hedabideek, baina, ez diete mugimendu horiei erreparatzen. Orintsu izan dira hauteskundeak Bosnian, otsailean Hong Kongeko mugimenduaren antzeko matxinada egin eta gero. Hamar hilabetetan Bosniako indar politiko eskuindarrak zergatik indartu diren ez dugu hedabideetan irakurri, hauteskundeak albiste izan ez direlako. Hedabideek albiste-agentzia handien mendekotasunetik aske informatzeko ahaleginik egin ez dutelako, hain zuzen. •



Albiste zer den Europak eta AEBk erabakitzen dute. Juan Carlos RUIZ | A. PRESS

osasuna / geltokiak / komunikazioa

3 BEGIRADA:

JANGURA PRODUKZIOAK-EN PROIEKTU BAT

GOSARIAK

CD-LIBURUA

XARMA BEREZIKO LANKIDETZA EGITASMOA

Testuak Joseba Sarrionandia **Musika** Gose
Ilustrazioak eta diseinua Iñigo Arregi eta Juan Luis Goikolea



**GARArekin
salgai**
Larunbata 25
eta igandea 26

8,95€
Soilik

"Bi gose mota daude, aho-urdailekoa eta zentzu-gogamenekoa.
Hemen dituzue gogoarentzako gosariak"

